# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia — Iruña, 2016ko maiatzaren 17a — 70. ZK.


**A U R K I B I D E A**

F SAILA:

**Galderak:**


—Galdera, “Enplegu Plana. Prestakuntzako eta enpleguko programa mistoak” kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).

—Galdera, Hezkuntza Departamentuaren elebizko komunikazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).

—Galdera, Nafarroako Gobernuak eta Banco de Santander SAk 2012ko ekainaren 29an sinatutako lankidetza hitzarmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).

—Galdera, udal jabetzako ikastetxeetan obrak egiteko laguntzen deialdiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

—Galdera, eremu ez-euskalduneko D ereduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

—Galdera, osasun-sistema publikoan artatutako ludopatia-kasuei ematen zaien tratamenduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

—Galdera, WhatsApp bidezko herritarrekiko komunikazio-zerbitzuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

—Galdera, Fitero, Cintruénigo, Fontellas eta Corella inguruetan Iberdrolaren hornidura elektrikoan mikroetenak gertatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

—Galdera, gizarteratze-errentarako eta San Juan de Dios Klinikarekiko hitzarmenerako programa edo kontusailen 2015. urteko behin betiko zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

—Galdera, emergentzia sozialeko laguntzetarako kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

—Galdera, Garraioaren Hiriko desjabetze prozesuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

—Galdera, zuntz optikoko sareek Nafarroan duten garapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).

—Galdera, atzerriko hizkuntzetako irakasleen prestakuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).

—Galdera, atzerriko hizkuntzen sustapenerako Hezkuntza Departamentuaren ikastaro eta jarduerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).

—Galdera, atzerriko hizkuntzen erabilera hobetzeko ikastaroei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).

—Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko ekografiako eta erresonantziako proba diagnostikoetako itxarote-zerrendei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
—Galdera, TRW enpresaren ordezkariaren agerraldiaren ostean haren aurka izandako istiluei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
—Galdera, Lizarrako Remontival ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
—Galdera, Nafarroako ikastetxeetan etorkinei eta gutxiengo soziokulturalki kaltetuei laguntza ematera Hezkuntza Departamentuak bideratutako aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
—Galdera, itxarote-zerrendak murrizte aldera "peonada" deritzen arratsaldeko lanaldiak ezartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
—Galdera, profesionalen eta gaixoen parte-hartzea hobetze aldera Osasun Departamentuak sortuko dituen foroei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
—Galdera, itxarote-zerrendak murrizteko xedez mediku espezialistak kontratatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (40. or.).
—Galdera, itxarote-zerrendak murrizteko aurreikusitako egutegiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (41. or.).
—Galdera, Buztintxuriko Osasun Etxearen ordutegia luzatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (41. or.).
—Galdera, jakitekoa ea Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin zer zuzemen egin duen Haur eta Lehen Hezkuntzako maisu-maistren graduetako ikasleek ingeleseko B2 edo/eta C1 maila kreditatzen duen titulua lor dezaten. Foru Diputazioaren erantzuna (42. or.).
—Galdera, frantseseko ikasleentzako truke-programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (43. or.).

F saila:
GALDERAK

# Galdera, “Enplegu Plana. Prestakuntzako eta enpleguko programa mistoak” kontusailari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Enplegu Plana. Prestakuntzako eta enpleguko programa mistoak” kontusailari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko otsailaren 22ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera bat egin du (9-16/PES-00084) prestakuntza eta enplegurako programa mistoei buruz. Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna:

2015ean, “Enplegu plana. Prestakuntzako eta enpleguko programa mistoak” izeneko kontusailaren hasierako aurrekontua 3.888.216 eurokoa zen, eta 3.204.945,97 euro exekutatu dira guztira. 2016an, kontusail horren beraren hasierako aurrekontua 3.700.000 eurokoa zen.

Enplegurako lantegi-eskolak eta Sustapen eta garapeneko unitateak sortzeko diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezarri zituen deialdia, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen martxoaren 15eko 388/2013 Ebazpenaz onetsia, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen azaroaren 3ko 2236/2015 Ebazpenaren bitartez aldatu zen. Honako hauek izan dira aldaketak:

• 5. oinarria. Programaren iraupena. Programen gehieneko iraupena 18 hilabetetik 9 hilabetera murrizten da.

• 17.2. oinarria. Eskabideak eta aurkezteko epea. Eskaerak aurkezteko epea aldatzen da, eta ezartzen da eskaerak hilabeteko epean aurkeztuko direla, deialdia argitaratzen den egunetik hasita edo, hala bada, hura hasteko ebazpena argitaratzen den egunetik.

• 18.1.b) oinarriko hamargarren atala. Aurkeztu beharreko dokumentazioa. Proiektua gauzatzeko aurreikusitako egunak aldatzen dira, eta nahitaez diru-laguntza emateko ebazpena jakinarazten den egunean hasi eta azaroaren 30ean bukatu beharko da.

• 18.2. oinarriko laugarren atala. Aurkeztu beharreko dokumentazioa. Proiektua gauzatzeko aurreikusitako egunak aldatzen dira, eta nahitaez diru-laguntza emateko ebazpena jakinarazten den egunean hasi eta azaroaren 30ean bukatu beharko da.

• 25.2 eta 3. oinarria. Diru-laguntzaren ordainketa eta justifikatzea Bigarren atala aldatu da, eta honako aurreikuspena jaso da: “Azken epealdia 3 hilabetetik beherakoa bada, ordainketa aldika eginen da, baina proiektuaren iraupenaren arabera”. Hirugarren atala aldatzen da, eta urte naturaleko azken aldiaren aurreikuspena kentzen da, zeren eta 2016an proiektuek ez baitute urtebete baino gehiago iraunen.

• 28.2 eta 3. oinarria. Onetsitako proiektuen aldaketak. Bigarren atala aldatu da, eta honako aurreikuspena jaso da: “Aldaketa nahitaez eskatu beharko da proiektua ezin bada aurreikusitako egunean hasi, diru-laguntza emateko ebazpena egun horren ondotik jakinarazi zelako”. Hirugarren atala aldatu da, eta honako aurreikuspena jaso da: “ Proiektuaren hasierako eguna aldatzen bada, aldaketa funtsezkotzat joko da beti”.

Azkenik, erantsita igortzen dizugu 2012tik 2015era enplegurako lantegi-eskolak direla-eta aurrera eraman diren proiektuen xehakatzea, bai

eta 2016an aurkeztutakoak ere. Honakoak aipatu ditugu: proiektuaren izena, espediente zenbakia, entitate sustatzaileak, non garatzen den, proiektuaren iraupena, aurkeztutakoen laneratze konpromisoak, sei hilabeteren buruan egindako laneratzeak, urtebeteren buruan egindako laneratzeak eta ikasleen asebetetze-maila. Espediente gehienetan azken hiru atalei buruzko daturik ez dago.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Eskubide Sozialetako lehendakariordea: Miguel Laparra Navarro

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariek, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman.)

## Galdera, Hezkuntza Departamentuaren elebizko komunikazioei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hezkuntza Departamentuaren elebizko komunikazioei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko otsailaren 22ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak 9-16/PES-00085 parlamentu-galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Hezkuntza Departamentuko Kabineteak adierazitako jarraibideak, ondoren erantsi dugun mezuko testuan ikus daitekeen bezala, Hezkuntza Departamentutik egin beharreko komunikazio elebidunei buruzkoa da, ez komunikazio guztiei buruzkoa:

*“Egun on, buenos días.*

*Departamentuaren komunikazio elebidunei dagokienez, zalantzak daudela esan digute. Gobernuaren departamentu guztietan jarraitu behar diren irizpideak hauek dira:*

*– Departamentutik (Gobernutik kanpo) irteten diren dokumentu ofizial guztiek (gutunak, instrukzioak, komunikatuak, zirkularrak, ofizioak, eskariak, abisuak, tituluak, eta abar) euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egon behar dute, ondoko argibideak jarraituz:*

- *Bi zutabetan, ezkerraldean euskaraz eta eskuinaldean gaztelaniaz.*
- *Idatzi osoa, euskaraz orrialde batean eta gaztelaniaz beste aldean.*
- *Testu osoa orrialde bakar batean sartzen bada, goian euskaraz eta behean gaztelaniaz.*

*– Irizpide bera Nafarroako Erkidego osoan ezartzen da.*

*– Itzultzaileak lan asko daukatenez, itzulpenak denbora askirekin eskatzea komeni da. Euskarabideak, ahal bada, Departamentuan bertan itzuli dezagula eskatzen du. Horretarako, dokumentuen txantiloilak sortzea komeni da; itzultzaileak lagunduko ligukete honetan.*

*Nos indican que existen dudas en cuanto a las comunicaciones bilingües del Departamento. Los criterios que hay que seguir en todos los departamentos del Gobierno son los siguientes:*

*– Todos los documentos oficiales (cartas, instrucciones, comunicados, circulares, oficios, instancias, avisos, títulos, etcétera) que salgan del Departamento (fuera del Gobierno) deben estar redactados en euskera y castellano con las siguientes indicaciones:*

- *En dos columnas, a la izquierda en euskera y a la derecha en castellano.*
- *La totalidad del texto por una carilla en euskera y por la otra en castellano.*
- *Si cabe en una sola cara, arriba en euskera y abajo en castellano.*

*– El criterio es el mismo para toda la Comunidad Foral.*

*– Los traductores tienen mucho trabajo, por lo cual conviene solicitar las traducciones con tiempo. En Euskarabidea piden que, en la medida de lo posible, traduzcamos en el propio Departamento, para lo que conviene crear plantillas para los documentos; nos ayudarían los propios traductores a generarlas.”*

Hartara, bada, jarraibide hauetan “dokumentu guztiak” esaten denean, aurreko esaldian esandakoaren arabera ulertu behar da, non honakoa aipatzen baita: “Departamentuaren komunikazio elebidunei dagokienez, zalantzak daudela esan digute”. Inon ere ez da aipatzen zalantzak daudenik Departamentuak, oro har, egiten dituen komunikazioei buruz, ez eta gaztelaniaz egiten direnei buruz ere. Gaur den egunean, dokumentuak, mezuak eta bestelako testuak gaztelania hutsez bidaltzen jarraitzen dugu hala dagokionean.

Izan ere, 2015-16 ikasturte honen amaierarako, erabaki da eta jarraibideak eman dira inprimaketa Departamentu honen menpekoa den ikasketa tituluak elebidunak izan daitezen soilik A eta D ereduetan egindako ikasketen kasuan, euskara bi kasu horietan baizik ez baita curriculumeko hizkuntza. G ereduan gaztelania hutsez emanen dira.

Bestalde, Foru Gobernuaren komunikazio guztiei buruz egiten den aipamenari dagokionez, baieztapen hori egiten da Hezkuntza Departamentuko Kabineteak Euskarabideari kontsulta egin ondoren; izan ere, erakunde hori komunikazio ofizialetako elebitasunari buruzko jarraibide orokor bat prestatzen ari da, eta hartan ezarriko da zein ordena erabiliko den Foru Administrazioak zabaltzen dituen testu elebidunetan.

Horrenbestez, kabineteburuak emandako jarraibideek LORAFNAn ezarritako ofizialtasuna betetzen dute.

Iruñean, 2016ko martxoaren 11n

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

---

# Galdera, Nafarroako Gobernuak eta Banco de Santander SAk 2012ko ekainaren 29an sinatutako lankidetza hitzarmenari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuak eta Banco de Santander SAk 2012ko ekainaren 29an sinatutako lankidetza hitzarmenari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko otsailaren 22ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### Garapen Ekonomikorako kontseilariaren erantzuna

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko Adolfo Araiz Flamarique jaunak informazio eskari parlamentarioa egin du( 9-16/PES-00086). Hauxe da Garapen Ekonomikorako kontseilariak informatzeko duena:

Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak eta Banco de Santader SAko orduko lehendakari Emilio Botín jaunak 2012ko ekainaren 29an izenpetutako lankidetza-hitzarmena ez zitzaion Nafarroako Gobernuari aurkeztu berrets zezan.

Aurrekoa gorabehera, Garapen Ekonomikorako Departamentuan dagoen dokumentazioa ikusita, jakitera ematen dizugu ezen Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariaren abenduaren 19ko 1021/2012 Foru Aginduaren bitartez inbertsio proiektuetarako abalak emanez Nafarroako ekonomia sustatzeko laguntzen deialdia onetsi zela. 2012ko abenduaren 19ko 246. NAOn argitaratu zen. Deialdi hori zabalik zegoen bertan parte hartzeko interesa zuten finantza-entitate guztiei. Deialdi horren babesean abalatu zuen Nafarroako Gobernuak Banco de Santander SAk Automoción Sostenible T+C SLri emandako 750.000 euroko mailegu bat. Enpresa horren jarduera da autoetarako eta bestelako ibilgailuetarako abiadura-kaxak, pare-bihurgailuak eta balbula-

gorputzak birfabrikatzea. Abal horrek indarrean jarraitzen du gaur egun.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean 2016eko martxoaren 15ean.

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

### Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariaren erantzuna

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galderak egin ditu (9-16/PES-00086) Nafarroako Gobernuaren eta Banco Santanderren arteko 2012ko ekainaren 29ko lankidetza-hitzarmenari buruz. Galdera 2016ko otsailaren 11ko 625 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

2012ko ekainaren 20an, bi mailegu egin ziren Banco de Santanderrekin, honako ezaugarri hauekin:

**4 urtera mugaeguna duen mailegua**

Baliatzeko data: 2012ko ekainaren 20a

Mugaeguna: 2016ko ekainaren 20a

Zenbatekoa: 100.000.000 euro

Amortizazio aldia: urtekoa.

Amortizazio kuotak: lau kuota berdin eta ondoz ondokoak

Urteko interes tasa nominala: finkoa, % 5,34koa

Interesen likidazio aldia: hiruhilekokoa.

Irekiera-komisioa: Nominalaren gaineko % 0,1 (100.000 euro)

Formalizazioa: fede-emaile publikoak esku hartu gabe.

**Zazpi urterako mailegua**

Baliatzeko data: 2012ko ekainaren 20a

Mugaeguna: 2019ko ekainaren 20a

Zenbatekoa: 100.000.000 euro

Gabealdia: bi urte.

Amortizazio aldia: urtekoa.

Amortizazio kuotak: lau kuota berdin eta ondoz ondokoak, 15.000.000 eurokoak, eta 40.000.000 euroko bosgarren kuota bat.

Urteko interes tasa nominala: finkoa, % 5,71koa

Interesen likidazio aldia: hiruhilekokoa.

Irekiera-komisioa: Nominalaren gaineko % 0,2 (200.000 euro)

Formalizazioa: fede-emaile publikoak esku hartu gabe.

2016ko otsailaren 4an, mailegu horren aldez aurretiko kitapen egin zen, zeren eta interes-tasen beheranzko bilakaerak eragin baitzuen eragiketa horrek konpentsatzea haiek kitatzearen kostuak.

**SANTANDER**

| DATA | INTERES TASA NOMINALA (% 5,34) | egunak | INTERESAK ETA KOMISIOAK | AMORTIZAZIOA | KUOTA | AMORTIZAZIOA METATUA | KAPITAL BIZIA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2012-06-20 | | | 100.000,00 | | -100.000.000,00 | 0 | 100.000.000 |
| 20-9 -2012 | % 5,340 | 90 | 1.335.000,00 | | 1.335.000 | 0 | 100.000.000 |
| 20-12 -2012 | % 5,340 | 90 | 1.335.000,00 | | 1.335.000 | 0 | 100.000.000 |
| 20-3 -2013 | % 5,340 | 90 | 1.335.000,00 | | 1.335.000 | 0 | 100.000.000 |
| 20-6 -2013 | % 5,340 | 90 | 1.335.000,00 | 25.000.000 | 26.335.000 | 25.000.000 | 75.000.000 |
| 20-9 -2013 | % 5,340 | 90 | 1.001.250,00 | | 1.001.250 | 25.000.000 | 75.000.000 |
| 20-12 -2013 | % 5,340 | 90 | 1.001.250,00 | | 1.001.250 | 25.000.000 | 75.000.000 |
| 20-3 -2014 | % 5,340 | 90 | 1.001.250,00 | | 1.001.250 | 25.000.000 | 75.000.000 |
| 20-6 -2014 | % 5,340 | 90 | 1.001.250,00 | 25.000.000 | 26.001.250 | 50.000.000 | 50.000.000 |
| 20-9 -2014 | % 5,340 | 90 | 667.500,00 | | 667.500 | 50.000.000 | 50.000.000 |
| 20-12 -2014 | % 5,340 | 90 | 667.500,00 | | 667.500 | 50.000.000 | 50.000.000 |
| 20-3 -2015 | % 5,340 | 90 | 667.500,00 | | 667.500 | 50.000.000 | 50.000.000 |
| 20-6 -2015 | % 5,340 | 90 | 667.500,00 | 25.000.000 | 25.667.500 | 75.000.000 | 25.000.000 |
| 20-9 -2015 | % 5,340 | 90 | 333.750,00 | | 333.750 | 75.000.000 | 25.000.000 |
| 20-12 -2015 | % 5,340 | 90 | 333.750,00 | | 333.750 | 75.000.000 | 25.000.000 |
| 4-2 -2016 | | (*) | 357.048,00 | 25.000.000 | 25.357.048 | 100.000.000 | |
| | | | | | | | |
| | | | **13.139.548,00** | **100.000.000** | | | |

(*)Kitapener arteko interesak 166.875 eurokoak izan ziren; aldez aurretiko kitapenaren kostuak, berriz, 190.173 eurokoak.

| DATA | INTERES TASA NOMINALA (% 5,71) | egunak | INTERESAK ETA KOMISIOAK | AMORTIZAZIOA | KUOTA | AMORTIZAZIOA METATUA | KAPITAL BIZIA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2012-06-20 | | | 200.000,00 | | -100.000.000,00 | 0 | 100.000.000 |
| 20-9 -2012 | % 5,71 | 90 | 1.427.500,00 | | 1.427.500 | 0 | 100.000.000 |
| 20-12 -2012 | % 5,71 | 90 | 1.427.500,00 | | 1.427.500 | 0 | 100.000.000 |
| 20-3 -2013 | % 5,71 | 90 | 1.427.500,00 | | 1.427.500 | 0 | 100.000.000 |
| 20-6 -2013 | % 5,71 | 90 | 1.427.500,00 | | 1.427.500 | 0 | 100.000.000 |
| 20-9 -2013 | % 5,71 | 90 | 1.427.500,00 | | 1.427.500 | 0 | 100.000.000 |
| 20-12 -2013 | % 5,71 | 90 | 1.427.500,00 | | 1.427.500 | 0 | 100.000.000 |
| 20-3 -2014 | % 5,71 | 90 | 1.427.500,00 | | 1.427.500 | 0 | 100.000.000 |
| 20-6 -2014 | % 5,71 | 90 | 1.427.500,00 | | 1.427.500 | 0 | 100.000.000 |
| 20-9 -2014 | % 5,71 | 90 | 1.427.500,00 | | 1.427.500 | 0 | 100.000.000 |
| 20-12 -2014 | % 5,71 | 90 | 1.427.500,00 | | 1.427.500 | 0 | 100.000.000 |
| 20-3 -2015 | % 5,71 | 90 | 1.427.500,00 | | 1.427.500 | 0 | 100.000.000 |
| 20-6 -2015 | % 5,71 | 90 | 1.427.500,00 | 15.000.000 | 16.427.500 | 15.000.000 | 85.000.000 |
| 20-9 -2015 | % 5,71 | 90 | 1.213.375,00 | | 1.213.375 | 15.000.000 | 85.000.000 |
| 20-12 -2015 | % 5,71 | 90 | 1.213.375,00 | | 1.213.375 | 15.000.000 | 85.000.000 |
| 4-2 -2016 | | (*) | 4.378.732,50 | 85.000.000 | 89.378.733 | 100.000.000 | |
| | | | | | | | |
| | | | **24.135.482,50** | **100.000.000** | | | |

(*)Kitapenera arteko interesak 606.687,50 eurokoak izan ziren; aldez aurretiko kitapenaren kostuak, berriz, 3.772.045 eurokoak.

Eragiketa horiek Gobernuaren 2011ko azaroaren 16ko Erabakiaz baimendu ziren. Erabaki horretan xedatu zen 476.100.000 eurora arteko zorpetze-eragiketak egitea, hein batean finantzatzeko Nafarroako Foru Komunitaterako 2009-2013 urteetarako aurrekontu-berrorekatzerako plan ekonomiko-finantzarioan jasotako defizit erreala. Kopuru hori 2010eko ekitaldiko erabili gabeko zorpetzearen defizit errealaren zati bati dagokio, eta ez dakar 2011rako gastu-ahalmenik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko martxoaren 16an

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria: Mikel Aranburu Urtasun

## Galdera, udal jabetzako ikastetxeetan obrak egiteko laguntzen deialdiari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, udal jabetzako ikastetxeetan obrak egiteko laguntzen deialdiari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko otsailaren 26ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeak 9-16/PES-00087 informazio-eskaria aurkeztu du. Hona hemen Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiaren otsailaren 25eko 98/2016 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuei diru-laguntzak emateko deialdi bat onetsi zen, Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak eta Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikastetxe publiko mistoak hobetu eta birmoldatzeko proiektuak gauzatu ahal ditzaten. Aurreikusita zegoen 2016ko martxoaren 15ean argitaratzea NAOn.

Honako hauek izanen dira finantzatuko diren obrak:

– Ikastetxearen eguneroko funtzionamendu egokia bermatzeko nahitaezko instalazioak izateagatik presako eta nahitaezko esku-hartzea eskatzen dutenak.

– Esparrua eta instalazioak segurtasun arloan indarra duen araudiari egokitzekoak, lehenbailehen egin beharrekoak, ikastetxearen titularra den toki entitateak bere gain ezin har ditzakeenak.

– Energia aurrezteko eta energia-efizientzia hobetzekoak, eraikinarekin inguratzailearekin eta instalazioekin zerikusia dutenak.

Iruñean, 2016ko martxoaren 17an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

# Galdera, eremu ez-euskalduneko D ereduari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, eremu ez-euskalduneko D ereduari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko otsailaren 26ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak 9-16/PES-00088 informazio-eskaria aurkeztu du. Haren bidez galdetzen da eremu ez-euskalduneko ikastetxeetan zabalduko diren D ereduko unitateei buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Egindako galderei erantzun baino lehen, komeni da azpimarratzea eremu ez-euskalduneko D ereduko unitateen eskaintza ez dela behin betiko itxi. Hala eta guztiz ere, une hauetan dauzkagun datuekin, honakoa da informatzeko duguna:

Eremu ez-euskalduneko ikastetxe publikoetako D ereduko unitate berri bakoitzerako aurreikusita dagoen kostua dela eta, esan behar dugu unitate horien kostua beste edozein eskola-unitatek daukan kostu bera dela, edozein dela ere unitate horren eremua edo hizkuntza-eredua.

Eskola-unitate bakoitzaren kostua horietarako aurreikusi diren irakasle-beharretatik heldu dena da. Haur hezkuntzan, irakasleen unitate bakoitzeko ratioa, behar diren laguntza-orduen eta ingeleseko irakaskuntza-zamaren arabera, 1,2 eta 1,3 irakasleen artekoa da; hori dela eta, unitate bakoitzaren kostua 44.560 eta 48.274 euro artekoa izanen da.

Eremu ez-euskalduneko D ereduan bizileku duten herria ez den beste batean eskolatuko diren ikasleen kopuruari buruz egin den bigarren galderari erantzunez, esan beharra dago une honetan aurreikusita dagoela D ereduko lau unitate zabaltzea.

• Bi unitate Tafallako Marqués de la Real Defensa ikastetxe publikoan (3 eta 4 urteko ikasleentzako bat eta 5 urtekoentzako beste bat).

• Unitate bat Lodosako Ángel Martínez Baigorri ikastetxe publikoan.

• Unitate bat Caparrosoko Ángel Martínez Baigorri ikastetxe publikoan.

Ikastetxe hauetan eskolaratuko diren ikasleak, herri berean bizi ez direnak, honako hauek dira:

– Tafallako Marqués de la Real Defensa ikastetxe publikoa: 4 ikasle, Barasoaindik heldu direnak.

– Lodosako Ángel Martínez Baigorri ikastetxe publikoa: Mendabiatik heldu den ikasle bat eta Andosillatik heldutako beste bat.

– Caparrosoko Ángel Martínez Baigorri ikastetxe publikoa: Santacaratik heldu den ikasle bat eta Arradatik heldutako beste bat.

Garraio eta jantoki gastuak direla-eta egindako galderari erantzuteko, ikasle horien jantoki gastuak ikasleko eta eguneko 3,83 eurokoak izanen dira. Ikasle kopurua eta aurreikusi diren jantokiko 114 egunak kontuan hartuta (asteazkenak eta lanaldi jarraitua dagoen ekaineko eta irail eko egunak kenduta), amaierako kostua 3.492,96 eurokoa izanen da.

Garraioari dagokionez, banakako laguntzak emanen zaizkie ikasle horiei. Laguntza horiek egunero ibili beharreko kilometroen araberakoak izanen dira: urtean 482,56 eurokoak izanen dira ibilbidea 10 km-tik beherakoa bada; 676,34 eurokoak, ibilbidea 10 km eta 20 km artekoa bada; 949,80 eurokoak, ibilbidea 20 km eta 30 km artekoa bada, eta 1.328,93 eurokoa, ibilbidea egunean 30 km-tik gorakoa bada.

Hala eta guztiz ere, oso litekeena da ikasle horietatik batzuek eskola-garraioko lineak erabili ahal izatea, bereziki Tafallako Marqués de la Real Defensa ikastetxe publikoan eskolaratuko direnak, ikastetxe hori eskola-kontzentrazio bat denez, eskola-garraioko zenbait linea baitauzka.

Nolanahi ere, garraiorako laguntzetarako kalkulatu den kostua ez da urtean 5.000 eurotik gorakoa izanen eta Foru Erkidegoan lehendik dauden eskola-kontzentrazioetarako erabiltzen diren irizpide berak erabiliko dira.

Iruñean, 2016ko martxoaren 17an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

# Galdera, osasun-sistema publikoan artatutako ludopatia-kasuei ematen zaien tratamenduari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, osasun-sistema publikoan artatutako ludopatia-kasuei ematen zaien tratamenduari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko otsailaren 26ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16/PES-00089), informazioa nahi baitu “azken bost urteetan osasun mentalean artatu diren Ludopatia kasuen kopuruari buruz, kasu horietarako ezarritako ibilbide eta protokoloari buruz eta pertsona horiei osasun publikoaren sistema ematen zaien arretari eta tratamenduari buruz”. Hauxe da Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

**2015eko datuak:**

2014ko ekainean, osasun mentaleko kasuen erregistro-sistema aldatu zen, halako moduz non aukera ematen baitu zuzenean historia kliniko informatizatuan hiru diagnostiko bitarte kodetzeko osasun mentaleko sareko fakultatiboek artatzen dituzten gaixoen kasuetan. Horrek nabarmen hobetu du erregistro-prozedura eta erregistratutako kasuen kalitatea, baina eragina izan dezake datu horien eta aurreko urteetako datuen arteko alderagarritasunean.

Hurrengo taulan F63 diagnostikoa (ohituren eta inpultsuen bulkaden kontrolaren nahasmendua, non ludopatia sartzen baita) duten pertsonen taula ageri da, bai eta berariaz F63.0 (Ludopatia) diagnostikoa dutenak ere, Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenaren arabera (10. bertsioa, CIE-10).

| KODEA | DIAGNOSTIKOA | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | NAGUSIA | | BIGARREN MAILAKOA | | HIRUGARREN MAILAKOA | | GUZTIRA | | |
| | G | E | G | E | G | E | G | E | |
| **F63.0 Ludopatia** | 39 | 5 | 10 | 1 | 10 | 0 | 59 | 6 | **65** |
| **F63 Ohituren eta inpultsuen bulkaden kontrolaren nahasmenduak** | 19 | 5 | 14 | 2 | 1 | 0 | 34 | 7 | **41** |
| **GUZTIRA** | 58 | 10 | 24 | 3 | 11 | 0 | 93 | 13 | **106** |

Laburbilduz, 2015ean zehar, osasun mentaleko sarean, Ludopatia diagnosia duten 65 pertsona artatu ziren, “Inpultsuen kontrolaren nahasmendua” diagnostiko orokorrarekin, non Ludopatia sartzen baita. Guztira, 106 pertsona dira; horietatik, hamarri alta eman zitzaien eta 96k osasun mentaleko sarean tratamenduan jarraitzen dute.

**Datu historikoak:**

| | GAIXO KOPURUA, GUZTIRA |
|---|---|
| 2012 | 33 |
| 2012 | 42 |
| 2013 | 33 |
| 2014 | 27 |
| 2015 | 44 |

2015eko datu gisa, konparazio-azterlan historikoan sartu ditugu soilik diagnostiko nagusi gisa F63.0 Ludopatia diagnostikoa dutenak, aurreko urteetan egiten zen bezala.

Kontuan hartu beharra dago 2015ean aurreko urteekiko gertatutako aldea honakoetatik etor daitekeela:

• Erregistro-sisteman egindako hobekuntzak, aurreko atalari dagozkionak.

• Laguntza-prozesuan egindako hobekuntzak, hurrengo atalean deskribatzen direnak.

• Aldaketa epidemiologikoak edo eskarian gertatutakoak, era longitudinalean ebaluatu beharko ditugunak.

**Osasun-laguntza publikoko sistemaren ibilbidea eta protokoloa.**

Lantalde batek osasun sare publikoan nahasmendu adiktiboei emandako laguntza aztertu zuen, eta nahasmendu adiktiboen zeharkako programa landu zuen, hain zuzen ere erantsi duguna, osasun mentaleko gerentziak 2014an onetsitakoa.

Programa horrek ludopatia substantziarik gabeko nahasmendu adiktibo gisa jaso zuen, adikzioei buruzko foru planari eta Psikiatria Elkarte Amerikarraren DSM-Varen gomendioei jarraituz.

Programa erantsi dugu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko martxoaren 17an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Oharra: Aipatutako programa eskuragarri dute foru parlamentariek, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman.)

## Galdera, WhatsApp bidezko herritarrekiko komunikazio-zerbitzuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, WhatsApp bidezko herritarrekiko komunikazio-zerbitzuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 4ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Guzmán Garmendia Pérez jaunak idatzizko galdera egin du herritarrekiko WhatsApp bidezko komunikazio zerbitzuari buruz (9-16/PES-00090). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Urtarrilaren 15ean erregistratu zen informazio-eskarian jakinarazi zen bezala (9-16/PEI-00037), Herritarren Arretarako eta Partaidetzarako Zerbitzua lanean ari da herritarrei arreta emateko plan bat prestatzeko. Plan horren ardatza izanen da gaur egun dauden kanal desberdina, bai eta haietan jarduten duten giza baliabideak ere, optimizatu eta berrantolatzea.

Hartara, plan hori landu eta abian jarri ondoren, ikusiko da ea zerbitzu horrek modua daukan beste arreta-kanal batzuk irekitzeko, betiere kalitatezko zerbitzu bat emateko behar diren bermeekin. Horrenbestez, epe laburrean ez dago aurreikusita whatsapp bidezko zerbitzua berrezartzea baina ez da, ezta ere, guztiz baztertu den aukera bat.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2016ko martxoaren 29an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

# Galdera, Fitero, Cintruénigo, Fontellas eta Corella inguruetan Iberdrolaren hornidura elektrikoan mikroetenak gertatzeari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Fitero, Cintruénigo, Fontellas eta Corella inguruetan Iberdrolaren hornidura elektrikoan mikroetenak gertatzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 4ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Guzmán Garmendia Pérez jaunak 9-16/PES-00091 galdera egin du. Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariaren informazioa:

**1. Fitero, Cintruénigo, Fontellas eta Corella eskualdearen egoera**

Fontellasko hornidura tentsio ertainean egiten da (13,2 kV), Tuterako banaketarako transformazio azpiestaziotik (BTA), zeina Lourdesko auzoaren ondoan baitago; azken hori elikatuta dago 66 kVrekin Tuterako transformazio azpiestaziotik (TA); Corella, Cintruénigo eta Fiterok, aldiz, Corellako BTAtik hornitzen dira tentsio ertainean, eta azken hori, berriz, La Sernako TAtik.

Tradizionalki Corellako BTAtik hornitutako eskualdeak Nafarroako batez bestekoa baino gorabehera gehiago pairatu ditu, nahiz eta arauen ikuspuntutik, non nagusiki kontuan hartzen baitira hiru minututik gorako hornidura-etenak, eskualdeko hornikuntzak kalitate onargarria duen, erregelamenduz eskatutakoa baino hobea.

Aurrekoa gorabehera, eta huts-egite iragankorren (edo mozketa txikiak) kopuruak nabarmen gora egin duenez, bereziki Corellako BTAtik hornitzen diren 66 kV-ko lineetan, Energiaren, Meatzaritzaren eta Industria Segurtasunaren Zerbitzuak 2012an Iberdrola Distribución Eléctrica SAUri (eskualdeko banaketaz arduratzen den enpresa da) eskatu zion hutsegite horiek ahal den guztian gutxitzeko neurriak abian jartzeko.

Adierazi beharra dago Fiteroko eskualdeak ez duela Corella, Cintruénigo eta Fiteroko eskualdeak daukan arazoa, zeren eta azken urteetan gertatutako hutsegite kopurua paramentro normalen barruan dagoela jo baitaiteke.

**2. Iberdrola Distribución Eléctrica SAUk hartutako neurriak**

Eskualdeko egoera aztertuta, Iberdrolak planteatu zuen hutsegite iragankorren arrazoi aipagarrienak zirela hegaztiek eroalekin izandako kontatuak, zikoinen habietako adaxkek eroalekin izandako kontatuak eta beirazko isolagailu esekien kateen zikinkeria, kutsaduraren eta, bereziki, hegazti-zirinen ondorioz.

Honako hauek izan dira azken urte hauetan enpresa banatzaileak hartutako neurriak:

– “Habien aurkako guardasolak” jartzea zikoinek habiak egin ditzaketen euskarrietan.

– “Pausatzearen aurkako ziriak” jartzea, hegaztiak ez daitezen pausatu isolagailuen kateetan eta, horrenbestez, haietan zirinik egon ez dadin.

– Beirazko isolagailu-kateak kendu eta konpositezko isolagailuak jartzea, zeinek, dirudienez, nolabaiteko immunitatea baitute zirinak direla eta, dela beren tamaina eta formarengatik, dela beren osaerarengatik.

– Corellako azpiestazioko hartune-tartean (2014ko urrian hasi zen lanean) 66kV-ko linea bikoiztea. Horrek aukera eman du bai gorabeherek ukitutako instalazioen kopurua gutxitzeko, bai matxura bakoitzean hornidura berrezartzeko denbora gutxitzeko ere.

Garrantzitsua da esatea ezen Energiaren, Meatzaritzaren eta Industria Segurtasunaren Zerbitzuak uneoro informazioa eman diela eskualdeko herrietako zinegotziei.

Halaber, Iberdrolak enpresentzako informaziojardunaldiak egin ditu (beren jarduerarengatik eta instalazio-motarengatik etxebizitzetako bezeroek baino gehiago kaltetuta daudenak mozketa txikiak direla eta), haien instalazioak babesteko neurriak aplikatze aldera.

**3. Hutsegite iragankorren bilakaera, neurriak abian jarri ondoren**

Ondoren ikus daiteke tentsio erdiko sarean eta goi-tentsioko sarean jatorria duten zenbat gorabehera izan diren, hilabeteka sailkatuak, Corella, Cintruénigo eta Fiteroko eskualdean:







Aurreko irudietan ikus daitekeen bezala, egindako jarduketekin 2014an eta 2015ean eskualdeko horniduraren kalitatea hobetu da. Halere, jarduten jarraitu beharra dago, afekzio berriak atzematen diren guztietan.

Energiaren, Meatzaritzaren eta Industria Segurtasunaren Zerbitzuak egoeraren jarraipena egiten jarraituko du, bereziki 2016ko udaberrian eta udan, zeren eta historikoki hilabete horietan izaten baitira maizen arazoak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko apirilaren 1ean.

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

## Galdera, gizarteratze-errentarako eta San Juan de Dios Klinikarekiko hitzarmenerako programa edo kontusailen 2015. urteko behin betiko zenbatekoari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, gizarteratze-errentarako eta San Juan de Dios Klinikarekiko hitzarmenerako programa edo kontusailen 2015. urteko behin betiko zenbatekoari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 4ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko martxoaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du. Galderak 783 sarrera-zenbakia dauka, 2016ko otsailaren 23koa (9-16/PES-00092), eta haren bidez jakin nahi du 2015eko ekitaldiaren aurrekontu-exekuzioa itxi ondoren, zein den gizarteratze-errentarako eta San Juan de Dios Klinikarekiko hitzarmenerako kontusailen behin betiko zenbatekoa. Hona Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariaren erantzuna:

Kontabilitate-sistemaren aurrekontu-exekuzioari buruzko informazioan –hartara zuzenean sar daiteke Parlamentutik– honako datu hauek ageri dira galderaren xede diren kontusailei buruz:

– 900003 91600 4809 231500 kontusaila, “Bizibiderik gabeko familia nafarrentzako laguntzak” izenekoa: 65.801.707,63 euro.

– 540002 52840 2500 311102 kontusaila, “San Juan de Dios Ospitalearekin itundutako osasun-laguntza” izenekoa: 19.341.562,74 euro.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko martxoaren 3an

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria: Mikel Aranburu Urtasun

## Galdera, emergentzia sozialeko laguntzetarako kontusailari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin M.ª Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, emergentzia sozialeko laguntzetarako kontusailari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 4ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera bat egin du (9-16/PES-00093), emergentzia sozialeko laguntzetarako kontusailari buruz. Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna:

**1.- 2015ean neurri horretara bideratutako 2 milioien betetze-maila:**

Toki entitateek eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa 2.116.911,97 eurokoa da, eta aurrekontuan dagoen kopurua gainditzen du; hori dela eta, deialdiko 10.4 oinarrian ezarritakoa aplikatuta, toki entitate onuradun bakoitzari eman beharreko kopurua mugatu zen, erreferentziako oinarrizko eskualdeetako bakoitza hiru adierazleren arabera hainbanatuz.

• 2014an gizarteratze errenta jasotzen duten unitateen kopurua (% 45).

• Nafarroako Gobernuaren 2014ko gizarteratzerako laguntza bereziak jaso dituzten familia unitateen kopurua (% 10).

• 2014ko abenduan langabezian dauden pertsonen kopurua (% 45).

Hurrengo taulan erakusten dugu entitateetako bakoitzak eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa, deialdiko 10.4 oinarriko irizpideak aplikatu ondoren gehienez ere eman daitekeen diru-laguntza, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa eta, azkenik, exekutatutako diru-laguntza eta dagokion ehunekoa.

Ikusten da entitate batzuetan alde txikiak daudela Departamentuak 10.4 oinarri arautzailea aplikatuz ematen dituen zenbatekoen eta amaieran emandako diru-laguntzaren zenbatekoen artean. Alde horren arrazoia da ezen, batzuetan entitateek aurkeztutako diru-laguntza eskariak ez direla iristen aurreikusitako zenbatekoaren guztizkora. Hala eta guztiz ere, beste entitate batzuek hasiera batean deialdiko baremoaren arabera aurreikusitakoez gorako zenbatekoak eskatu zituzten; hori dela eta, soberakineko zenbatekoa azken horien artean banatzea erabaki zen.

Toki entitateek exekutatu duten zenbatekoa 1.569.480,83 eurokoa da; hau da, entitateei emandako diru-laguntzen guztizko kopuruaren exekuzioaren % 78,47. Halaber, entitateen % 66,67k, 45 entitatetatik 30ek, emandako diru-laguntzaren % 100 exekutatu zuten.

Departamentuak emandako diru-laguntzaren zenbatekoaren guztizkoa exekutatu ez duten 15 entitateetatik, 5ek % 75etik gorako justifikazioa dute: Antzin-Ameskoako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Barañaingo Udala, Buñuel eskualdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Lizarrako Udala eta Uharte eta Esteribarko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.

% 75etik gorako exekuzio-ehunekoak dituzten gainerako toki entitateek –esate baterako, Iruñeko Udalak– adierazi dute ez dutela exekutatu hasiera batean emandako aurrekontu-kopurua, behar ziren aldaketa administratibo, juridiko eta prozedurakoak behar zen denboran eta moduan konpontzeko zailtasunak izan dituztelako, 2015eko deialdiaren exekuzioari dagokionez, zeren eta entitate horrek emergentzia sozialeko programa bereki bat bai baitu.

**Toki entitateek eskatutako eta emandako diru-laguntza, exekuzioaren ehunekoaren arabera**

| TOKI ENTITATEA | Toki entitateak eskatutako zenbatekoa | Emandako diru-laguntza | Exekutatutako diru-laguntza | Diru-laguntzaren ehunekoa |
|---|---|---|---|---|
| Artaxoako Udala | 11.714,05 | 11.714,05 | 11.714,05 | % 100 |
| Aiegiko Udala | 6.663,10 | 6.663,10 | 6.663,10 | % 100 |
| Baztango Udala | 12.427,69 | 12.427,69 | 12.427,69 | % 100 |
| Burlatako Udala | 69.200,00 | 69.200,00 | 69.200,00 | % 100 |
| Corellako Udala | 55.090,00 | 55.090,00 | 55.090,00 | % 100 |
| Tafallako Udala | 34.321,00 | 34.321,00 | 34.321,00 | % 100 |
| Tuterako Udala | 271.868,00 | 199.428,68 | 199.428,68 | % 100 |
| Vianako Udala | 12.331,00 | 12.331,00 | 12.331,00 | % 100 |
| Atarrabiako Udala | 39.050,00 | 39.050,00 | 39.050,00 | % 100 |
| Zizur Nagusiko Udala | 40.481,50 | 40.481,50 | 40.481,50 | % 100 |
| Aranguren Ibarreko Udala | 25.000,00 | 25.000,00 | 25.000,00 | % 100 |
| Eguesibarko Udala | 76.485,25 | 76.010,53 | 76.010,53 | % 100 |
| Erronkari Ibaxaren Batzordea | 2.000,00 | 1.266,75 | 1.266,75 | % 100 |
| Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 8.715,26 | 8.715,26 | 8.715,26 | % 100 |
| Malerrekako Mankomunitatea | 12.592,00 | 12.592,00 | 12.592,00 | % 100 |
| Zangoza Eskualdeko Mankomunitatea | 10.286,89 | 10.286,89 | 10.286,89 | % 100 |
| Andosilla, Azagra, Cárcar eta San Adriango Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 40.307,72 | 40.307,72 | 40.307,72 | % 100 |
| Auñamendiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 17.920,00 | 3.687,90 | 3.687,90 | % 100 |
| Cintruénigo eta Fiteroko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 34.000,00 | 34.000,00 | 34.000,00 | % 100 |
| Erriberriko eskualdeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 26.352,91 | 26.352,91 | 26.352,91 | % 100 |
| Azkoiengo eskualdeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 50.000,00 | 50.000,00 | 50.000,00 | % 100 |
| Ultzamako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 9.776,40 | 9.776,40 | 9.776,40 | % 100 |
| Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 15.882,04 | 15.882,04 | 15.882,04 | % 100 |
| Zarrakazteluko osasun eskualde oinarrizkoaren Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 20.000,00 | 20.000,00 | 20.000,00 | % 100 |
| Azkoiengo eskualdeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 19.479,04 | 19.479,04 | 19.479,04 | % 100 |
| Arguedas, Valtierra, Villafranca, Milagro eta Cadreitako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 40.000,00 | 40.000,00 | 40.000,00 | % 100 |
| Los Arcosko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 5.315,00 | 5.315,00 | 5.315,00 | % 100 |
| Zaraitzuko eta Nabaskozeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 2.000,00 | 1.993,46 | 1.993,46 | % 100 |
| Irantzuko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 10.500,00 | 10.500,00 | 10.500,00 | % 100 |
| Itzaga Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 13.873,46 | 13.873,46 | 13.873,46 | % 100 |
| Uharte eta Esteribarko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 22.869,76 | 22.869,76 | 22.769,11 | % 99,56 |
| Antzin-Ameskoako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 11.137,22 | 11.137,22 | 10.720,00 | % 96,25 |
| Barañaingo Udala | 43.000,00 | 43.000,00 | 34.559,44 | % 80,37 |
| Lizarrako Udala | 25.620,00 | 25.620,00 | 19.904,92 | % 77,69 |
| Buñuelgo eskualdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 39.000,00 | 39.000,00 | 29.542,14 | % 75,75 |
| Antsoain, Berriobeiti, Berriozar, Itza eta Txulapaingo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 34.500,00 | 34.500,00 | 24.850,62 | % 72,03 |
| Irurtzungo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 16.953,37 | 16.953,37 | 12.057,26 | % 71,12 |
| Orkoiengo Udala | 22.100,00 | 22.100,00 | 15.581,14 | % 70,50 |
| Izarbeibarko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 17.650,00 | 17.650,00 | 12.057,88 | % 68,32 |
| Elizagorria, Lodosa, Mendabia, Sartaguda eta Sesmako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 33.633,52 | 33.633,52 | 22.296,09 | % 66,29 |
| Noaingo eskualdeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 98.000,00 | 68.973,97 | 45.077,13 | % 65,35 |
| Etxarri Aranazko eskualdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 11.500,00 | 11.500,00 | 7.349,80 | % 63,91 |
| Iruñeko Udala | 668.033,55 | 668.033,55 | 366.067,48 | % 54,80 |
| Queiles Ibarreko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 42.282,24 | 42.282,24 | 22.658,08 | % 53,59 |
| Altsasu, Olazti eta Ziordiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 37.000,00 | 37.000,00 | 18.243,36 | % 49,31 |
| **GUZTIRA** | **2.116.911,97** | **2.000.000,00** | **1.569.480,83** | **% 78,47** |

**2.- Laguntza horien barruan sartzen diren kontzeptuak, laguntza-kopurua kontzeptuz kontzeptu zehaztuta: Emandako diru-laguntzak, kategoriaren, datu absolutuen eta portzentaje horizontalen arabera**

| Oinarrizko Gizarte Zerbitzua | Lojamendua | | *Energia* | | Nutrizioa eta osasuna | | Hezkuntza eta gizarteratzea eta laneratzea | | Bestelako oinarrizko beharren estaldura | | Oinarrizko Gizarte Zerbitzu bakoitzarengatiko laguntzak, guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Laguntzen kopurua | Kategoriaren guztizkoaren gaineko portzentajea | Laguntzen kopurua | Kategoriaren guztizkoaren gaineko portzentajea | Laguntzen kopurua | Kategoriaren guztizkoaren gaineko portzentajea | Laguntzen kopurua | Kategoriaren guztizkoaren gaineko portzentajea | Laguntzen kopurua | Kategoriaren guztizkoaren gaineko portzentajea | |
| Allo aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 15 | % 1,1 | 14 | % 1,3 | 19 | % 1,0 | 7 | % 1,6 | 6 | % 1,5 | 61 |
| Altsasuko eskualdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 11 | % 0,8 | 6 | % 0,5 | 36 | % 1,8 | 0 | % 0,0 | 1 | % 0,2 | 54 |
| Antzin-Ameskoako Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatea | 17 | % 1,2 | 3 | % 0,3 | 12 | % 0,6 | 0 | % 0,0 | 1 | % 0,2 | 33 |
| Itzaga Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 2 | % 0,1 | 3 | % 0,3 | 20 | % 1,0 | 29 | % 6,5 | 7 | % 1,7 | 61 |
| Aranguren Ibarreko Udala | 12 | % 0,9 | 9 | % 0,8 | 25 | % 1,3 | 62 | % 13,9 | 2 | % 0,5 | 110 |
| Artaxoako Udala | 10 | % 0,7 | 10 | % 0,9 | 15 | % 0,8 | 1 | % 0,2 | 6 | % 1,5 | 42 |
| Auñamendi Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 8 | % 0,6 | 1 | % 0,1 | 2 | % 0,1 | 0 | % 0,0 | 0 | % 0,0 | 11 |
| Aiegiko Udala | 6 | % 0,4 | 21 | % 1,9 | 15 | % 0,8 | 1 | % 0,2 | 3 | % 0,7 | 46 |
| Barañaingo Udala | 27 | % 1,9 | 8 | % 0,7 | 12 | % 0,6 | 0 | % 0,0 | 7 | % 1,7 | 54 |
| Antsoain eta abarretako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 29 | % 2,1 | 3 | % 0,3 | 43 | % 2,2 | 0 | % 0,0 | 0 | % 0,0 | 75 |
| Buñuel aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 20 | % 1,4 | 19 | % 1,7 | 15 | % 0,8 | 0 | % 0,0 | 13 | % 3,1 | 67 |
| Burlatako Udala | 27 | % 1,9 | 30 | % 2,7 | 455 | % 23,2 | 6 | % 1,3 | 12 | % 2,9 | 530 |
| Zarrakazteluko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 25 | % 1,8 | 14 | % 1,3 | 16 | % 0,8 | 2 | % 0,4 | 3 | % 0,7 | 60 |
| Queiles Ibarreko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 6 | % 0,4 | 11 | % 1,0 | 34 | % 1,7 | 6 | % 1,3 | 9 | % 2,2 | 66 |
| Cintruenigoko eta Fiteroko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 52 | % 3,7 | 88 | % 7,9 | 23 | % 1,2 | 19 | % 4,3 | 1 | % 0,2 | 183 |
| Zizur Nagusiko Udala | 41 | % 2,9 | 35 | % 3,1 | 13 | % 0,7 | 13 | % 2,9 | 17 | % 4,1 | 119 |
| Corellako Udala | 50 | % 3,5 | 86 | % 7,7 | 45 | % 2,3 | 6 | % 1,3 | 25 | % 6,1 | 212 |
| Malerrekako Mankomunitatea | 9 | % 0,6 | 15 | % 1,3 | 13 | % 0,7 | 0 | % 0,0 | 10 | % 2,4 | 47 |
| Eguesibarko Udala | 25 | % 1,8 | 25 | % 2,2 | 95 | % 4,8 | 212 | % 47,5 | 44 | % 10,7 | 401 |
| Baztango Udala | 22 | % 1,6 | 13 | % 1,2 | 2 | % 0,1 | 0 | % 0,0 | 6 | % 1,5 | 43 |
| Lizarrako Udala | 11 | % 0,8 | 13 | % 1,2 | 28 | % 1,4 | 2 | % 0,4 | 0 | % 0,0 | 54 |
| Etxarri Aranazko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 5 | % 0,4 | 8 | % 0,7 | 7 | % 0,4 | 4 | % 0,9 | 2 | % 0,5 | 26 |
| Uharte eta Esteribarko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 67 | % 4,8 | 0 | % 0,0 | 0 | % 0,0 | 0 | % 0,0 | 2 | % 0,5 | 69 |
| Irurtzungo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 6 | % 0,4 | 2 | % 0,2 | 3 | % 0,2 | 2 | % 0,4 | 6 | % 1,5 | 19 |

| Oinarrizko Gizarte Zerbitzua | Lojamendua | | *Energia* | | Nutrizioa eta osasuna | | Hezkuntza eta gizarteratzea eta laneratzea | | Bestelako oinarrizko beharren estaldura | | Oinarrizko Gizarte Zerbitzu bakoitzarengatiko laguntzak, guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Laguntzen kopurua | Kategoriaren guztizkoaren gaineko portzentajea | Laguntzen kopurua | Kategoriaren guztizkoaren gaineko portzentajea | Laguntzen kopurua | Kategoriaren guztizkoaren gaineko portzentajea | Laguntzen kopurua | Kategoriaren guztizkoaren gaineko portzentajea | Laguntzen kopurua | Kategoriaren guztizkoaren gaineko portzentajea | |
| Erronkari Ibaxaren Batzordea | 1 | % 0,1 | 0 | % 0,0 | 1 | % 0,1 | 0 | % 0,0 | 3 | % 0,7 | 5 |
| Leitza eta abarretako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 1 | % 0,1 | 6 | % 0,5 | 51 | % 2,6 | 13 | % 2,9 | 2 | % 0,5 | 73 |
| Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 17 | % 1,2 | 8 | % 0,7 | 44 | % 2,2 | 3 | % 0,7 | 2 | % 0,5 | 74 |
| Elizagorria, Lodosa eta abarretako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 11 | % 0,8 | 29 | % 2,6 | 11 | % 0,6 | 0 | % 0,0 | 6 | % 1,5 | 57 |
| Los Arcosko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 4 | % 0,3 | 7 | % 0,6 | 4 | % 0,2 | 0 | % 0,0 | 6 | % 1,5 | 21 |
| Noaingo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 25 | % 1,8 | 39 | % 3,5 | 51 | % 2,6 | 6 | % 1,3 | 9 | % 2,2 | 130 |
| Erriberriko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 42 | % 3,0 | 30 | % 2,7 | 18 | % 0,9 | 3 | % 0,7 | 1 | % 0,2 | 94 |
| Orkoiengo Udala | 6 | % 0,4 | 5 | % 0,4 | 5 | % 0,3 | 5 | % 1,1 | 6 | % 1,5 | 27 |
| Iruñeko Udala | 502 | % 35,6 | 184 | % 16,5 | 448 | % 22,8 | 1 | % 0,2 | 101 | % 24,5 | 1.236 |
| Azkoiengo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 66 | % 4,7 | 52 | % 4,7 | 89 | % 4,5 | 6 | % 1,3 | 19 | % 4,6 | 232 |
| Izarbeibarko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 9 | % 0,6 | 9 | % 0,8 | 8 | % 0,4 | 1 | % 0,2 | 1 | % 0,2 | 28 |
| Zaraitzu eta abarretako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 2 | % 0,1 | 4 | % 0,4 | 1 | % 0,1 | 2 | % 0,4 | 0 | % 0,0 | 9 |
| Andosilla eta abarretako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 13 | % 0,9 | 19 | % 1,7 | 34 | % 1,7 | 7 | % 1,6 | 29 | % 7,0 | 102 |
| Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitatea | 10 | % 0,7 | 4 | % 0,4 | 11 | % 0,6 | 0 | % 0,0 | 3 | % 0,7 | 28 |
| Tafallako Udala | 24 | % 1,7 | 49 | % 4,4 | 7 | % 0,4 | 10 | % 2,2 | 5 | % 1,2 | 95 |
| Tuterako Udala | 94 | % 6,7 | 148 | % 13,3 | 51 | % 2,6 | 0 | % 0,0 | 0 | % 0,0 | 293 |
| Ultzamako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 9 | % 0,6 | 5 | % 0,4 | 6 | % 0,3 | 0 | % 0,0 | 1 | % 0,2 | 21 |
| Arguedas eta abarretako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 21 | % 1,5 | 33 | % 3,0 | 22 | % 1,1 | 7 | % 1,6 | 23 | % 5,6 | 106 |
| Vianako Udala | 6 | % 0,4 | 12 | % 1,1 | 62 | % 3,2 | 1 | % 0,2 | 2 | % 0,5 | 83 |
| Irantzuko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 10 | % 0,7 | 7 | % 0,6 | 19 | % 1,0 | 8 | % 1,8 | 5 | % 1,2 | 49 |
| Atarrabiako Udala | 33 | % 2,3 | 27 | % 2,4 | 72 | % 3,7 | 1 | % 0,2 | 6 | % 1,5 | 139 |
| **Orokorra, guztira** | **1.409** | **% 100,0** | **1.114** | **% 100,0** | **1.963** | **% 100,0** | **446** | **% 100,0** | **413** | **% 100,0** | **5.345** |

**3.- Zehazki, hornikuntzetarako (argindarra eta gasa) zenbat laguntza eman dira kontusail horren kargura? Zenbat hornikuntza-mota bakoitzerako? Zenbat laguntza eman dira xede berarekin laguntza berezien kargura? Hori guztia, hilabetez hilabete zehaztuta.**

Horniduretarako (elektrizitatea/gasa) eman diren emergentziako laguntzak 1114 dira; honela daude banatuta:

| Energia | 1114 |
|---|---|
| b.1.1) Elektrizitate-horniduraren faktura ordaintzea | 571 |
| b.1.2) Gas-horniduraren faktura ordaintzea | 298 |
| b.1.3) Ur-horniduraren faktura ordaintzea | 224 |
| b.2) Ohiko etxebizitzako energia-horniduretarako kontratuen alta ordaintzea | 21 |

Aipatu beharra dago toki entitateek, diru-laguntza justifikatzeko txostenean, ez zutela zehaztu behar laguntzak zein hilabetetan eman ziren; hori dela eta, informazio hori ezin da lortu.

Laguntza bereziei dagokienez:

Hornidurak direla-eta, 234 laguntzari eman zaie, guztira, aldeko ebazpena. Horietatik 44 “gas zorren” kontzeptuan dira; 44 “elektrizitate zorren” kontzeptuan eta 146, azkenik, “zor orokorrak” ataren pean sartzen dira, eta azken horietan bi kontzeptuak jaso daitezke: elektrizitatea edo/eta gasa.

**4.- 2015ean ebatzitako espediente-kopurua**

2015erako emergentzia sozialeko laguntzak emateko toki entitateentzako diru-laguntzen deialdian ebatzitako espedienteak 5.345 dira.

**5.- Ziurta al dezakezu nafar guztien aukera-berdintasuna bermatu dela laguntza horien finantzaketa eskuratzeari dagokionez? Ziurta al dezakezu aukera-berdintasun hori, kontzeptu ezberdinen finantzaketa eskuratzeari dagokionez?**

Emergentzia sozialeko laguntzak emateko toki entitateei diru-laguntzak emateko prozedura, deialdiko bederatzigarren oinarriak dioen bezala, norgehiagoka da, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeko 17.1 artikuluan aurreikusitako terminoetan; hori dela eta, aukera-berdintasuna eta finantzaketarako sarbidea bermatu egin zaie Foru Komunitateko toki entitate guztiei.

Bestalde, eskabideen balorazioa Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egin dute, horixe baita Foru Komunitateak gizarte zerbitzuak lurraldean antolatzeko daukan organoa. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak dioen bezala, honako printzipio hauen arabera antolatzen dira zerbitzu horiek: deszentralizazioa, herritarrekiko hurbiltasuna, beharrizan sozialak asetzeko eraginkortasuna, lurralde-oreka eta -homogeneotasuna eta informazioa eta zerbitzuak eskuragarri edukitzea.

**7.- Oinarrizko Gizarte Zerbitzu ezberdinentzako finantzaketaren banaketa. Oinarrizko Gizarte Zerbitzu bakoitzak jasotako finantzaketaren betetze-maila.**

**Toki entitateek eskatutako eta emandako diru-laguntza, exekuzioaren ehunekoaren arabera**

| TOKI ENTITATEA | Toki entitateak eskatutako zenbatekoa | Emandako diru-laguntza | Exekutatutako diru-laguntza | Diru-laguntzaren ehunekoa |
|---|---|---|---|---|
| Artaxoako Udala | 11.714,05 | 11.714,05 | 11.714,05 | % 100 |
| Aiegiko Udala | 6.663,10 | 6.663,10 | 6.663,10 | % 100 |
| Baztango Udala | 12.427,69 | 12.427,69 | 12.427,69 | % 100 |
| Burlatako Udala | 69.200,00 | 69.200,00 | 69.200,00 | % 100 |
| Corellako Udala | 55.090,00 | 55.090,00 | 55.090,00 | % 100 |
| Tafallako Udala | 34.321,00 | 34.321,00 | 34.321,00 | % 100 |
| Tuterako Udala | 271.868,00 | 199.428,68 | 199.428,68 | % 100 |
| Vianako Udala | 12.331,00 | 12.331,00 | 12.331,00 | % 100 |
| Atarrabiako Udala | 39.050,00 | 39.050,00 | 39.050,00 | % 100 |
| Zizur Nagusiko Udala | 40.481,50 | 40.481,50 | 40.481,50 | % 100 |
| Aranguren Ibarreko Udala | 25.000,00 | 25.000,00 | 25.000,00 | % 100 |
| Eguesibarko Udala | 76.485,25 | 76.010,53 | 76.010,53 | % 100 |
| Erronkari Ibaxaren Batzordea | 2.000,00 | 1.266,75 | 1.266,75 | % 100 |
| Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 8.715,26 | 8.715,26 | 8.715,26 | % 100 |
| Malerrekako Mankomunitatea | 12.592,00 | 12.592,00 | 12.592,00 | % 100 |
| Zangoza Eskualdeko Mankomunitatea | 10.286,89 | 10.286,89 | 10.286,89 | % 100 |
| Andosilla, Azagra, Cárcar eta San Adriango Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 40.307,72 | 40.307,72 | 40.307,72 | % 100 |
| Auñamendiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 17.920,00 | 3.687,90 | 3.687,90 | % 100 |
| Cintruénigo eta Fiteroko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 34.000,00 | 34.000,00 | 34.000,00 | % 100 |
| Erriberriko eskualdeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 26.352,91 | 26.352,91 | 26.352,91 | % 100 |
| Azkoiengo eskualdeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 50.000,00 | 50.000,00 | 50.000,00 | % 100 |
| Ultzamako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 9.776,40 | 9.776,40 | 9.776,40 | % 100 |
| Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 15.882,04 | 15.882,04 | 15.882,04 | % 100 |
| Zarrakazteluko osasun eskualde oinarrizkoaren Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 20.000,00 | 20.000,00 | 20.000,00 | % 100 |
| Azkoiengo eskualdeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 19.479,04 | 19.479,04 | 19.479,04 | % 100 |
| Arguedas, Valtierra, Villafranca, Milagro eta Cadreitako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 40.000,00 | 40.000,00 | 40.000,00 | % 100 |
| Los Arcosko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 5.315,00 | 5.315,00 | 5.315,00 | % 100 |
| Zaraitzuko eta Nabaskozeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 2.000,00 | 1.993,46 | 1.993,46 | % 100 |
| Irantzuko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 10.500,00 | 10.500,00 | 10.500,00 | % 100 |
| Itzaga Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 13.873,46 | 13.873,46 | 13.873,46 | % 100 |
| Uharte eta Esteribarko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 22.869,76 | 22.869,76 | 22.769,11 | % 99,56 |
| Antzin-Ameskoako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 11.137,22 | 11.137,22 | 10.720,00 | % 96,25 |
| Barañaingo Udala | 43.000,00 | 43.000,00 | 34.559,44 | % 80,37 |
| Lizarrako Udala | 25.620,00 | 25.620,00 | 19.904,92 | % 77,69 |
| Buñuelgo eskualdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 39.000,00 | 39.000,00 | 29.542,14 | % 75,75 |
| Antsoain, Berriobeiti, Berriozar, Itza eta Txulapaingo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 34.500,00 | 34.500,00 | 24.850,62 | % 72,03 |
| Irurtzungo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 16.953,37 | 16.953,37 | 12.057,26 | % 71,12 |
| Orkoiengo Udala | 22.100,00 | 22.100,00 | 15.581,14 | % 70,50 |
| Izarbeibarko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 17.650,00 | 17.650,00 | 12.057,88 | % 68,32 |
| Elizagorria, Lodosa, Mendabia, Sartaguda eta Sesmako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 33.633,52 | 33.633,52 | 22.296,09 | % 66,29 |
| Noaingo eskualdeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 98.000,00 | 68.973,97 | 45.077,13 | % 65,35 |
| Etxarri Aranazko eskualdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 11.500,00 | 11.500,00 | 7.349,80 | % 63,91 |
| Iruñeko Udala | 668.033,55 | 668.033,55 | 366.067,48 | % 54,80 |
| Queiles Ibarreko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 42.282,24 | 42.282,24 | 22.658,08 | % 53,59 |
| Altsasu, Olazti eta Ziordiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | 37.000,00 | 37.000,00 | 18.243,36 | % 49,31 |
| **GUZTIRA** | **2.116.911,97** | **2.000.000,00** | **1.569.480,83** | **% 78,47** |

**8.- Ba al da Oinarrizko Gizarte Zerbitzurik xede horretarako jasotako dirua gastatu ezin izan duenik, diru hori jasotzeko baldintzaren bat bete izana frogatu ezin izateagatik; esate baterako, eskatzaileek banku-kontuetan daukaten dirua?**

Toki entitateek Eskubide Sozialetako Departamentuari aurkeztutako programaren ebaluazioan, ez dago jasota emandako diru-laguntzaren zenbatekoaren ez-betetzea zor zaionik "eskatzaileek banku-kontuetan daukaten dirua ezin frogatzeari".

Esan beharra dago ezen, deialdiko 4.C oinarrian ageri den bezala, laguntzetarako programek erreferentziako oinarrizko eskualdean bizi diren pertsonen beharrak estaliko dituztela, betiere honako baldintzak betetzen badituzte:

• 18 urte baino gehiago izatea.

• Erreferentziako gizarte zerbitzuaren oinarrizko eskualdeko herrietako batean erroldatuta egotea.

• Hilabetez hilabete kontatuta, familia-unitatearen baliabide ekonomikoak ez izatea lanbide arteko gutxieneko soldataren 2,5 halako baino handiagoak.

• Indar handiko edo nahi gabeko egoera ezustekoa izatea.

**9.- Hori horrela baldin bada, gainerako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek nola frogatu dute baldintza hori betetzen dutela?**

Aurreko galderari erantzutean aipatu den bezala, toki entitateek aurkeztutako justifikaziotxostenetan ez dago jasota emandako diru-laguntzaren zenbatekoaren ez-betetzea zor zaionik "eskatzaileek banku-kontuetan daukaten dirua ezin frogatzeari".

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko martxoaren 23an

Eskubide Sozialetako lehendakariordea: Miguel Laparra Navarro

---

# Galdera, Garraioaren Hiriko desjabetze prozesuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Garraioaren Hiriko desjabetze prozesuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 4ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak galdera egin du (9-16/PES-00094), "Garraioaren Hiria" izenez ezagutzen denaren desjabetzeari buruzkoa, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean. Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariak, zeinak behean sinatzen baitu, ematen dion erantzuna:

**1. Aipatutako epaiaren kopia.**

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren autoen kopia erantsi da. (1. eranskina)

**2. Garatutako desjabetze-prozesuari dagokionez, noiz hasi zen, ea administrazio-prozedurak ezartzen duenari jarraituz egin zen, eta balio justua nola ezarri zen.**

Nafarroako Gobernuaren 2004ko uztailaren 26ko erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen Garraioaren Hiria handitzeko Udalez gaindiko Plan Sektoriala. (100. NAO, 2004ko abuztuaren 24koa).

2005eko urtarrilaren 24ko 15/2005 Foru Dekretuaren bidez (20. NAO, 2005eko otsailaren 16koa) adierazi zen presakoa zela Iruñeko Garraioaren Hiria handitzeko Udalez gaindiko Plan Sektorialak ukitutako ondasun eta eskubideen okupazioa, nahitaezko desjabetzapena egiteko, eta xedatu zen Ciudad del Transporte de Pamplona, S.A.

nahitaezko desjabetzapenaren onuradun izanen zela.

Azken alderdi horri dagokionez, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Erregelamenduak honako hau xedatzen du:

*"5. ARTIKULUA.*

*1. Nahitaezko desjabetzearen onuradun diren pertsonei edo erakundeei dagokie haien aldeko desjabetzapen espedientea eskatzea dagokion Administrazioari. Horretarako, erabat justifikatu beharko dituzte desjabetzearen legezko jatorria eta haien onuradun izaera. Horrez gain, Administrazio desjabetzaileak egokitzat jotzen dituen beste justifikazio eskatu, eta bere baliabideen bidez beharrezko egiaztapenak egin ahalko ditu.*

*2. Espedientearen ibilbidean, onuradunek honako eskumen eta betebehar hauek izanen dituzte esleituta:*

*• 1. Desjabetze espedientearen zati gisa, prozedura sustatzea eta horri buruzko gorabeheren eta erabakien berri ematea, beraiek nahi dutenean.*

*• 2. Legearen 17. artikuluak aipatzen duen zerrenda egitea.*

*• 3. Legearen 24. artikuluak aipatzen duen eskurapen adiskidetsua askatasunez hitzartzea desjabetuarekin.*

*• 4. Balio justuari buruzko pieza bananduan jardutea, Legearen 30. artikuluak aipatzen duen prezio-orria aurkezteko eta jabeek proposatzen duten balorazioa onartzeko edo baztertzeko.*

*• 5. Balio justutzat jotako diru-kopurua ordaintzea edo, hala denean, gordailu gisa ematea.*

*• 6. Hari egotzi beharreko atzerapenengatik legez dagozkion berandutzagatiko kalte-ordainak ordaintzea.*

*• 7. Itzultzetik datozen betebeharrak eta eskubideak; eta*

*• 8. Legean eta Araudi honetan ezarritako gainerako eskubideak eta betebeharrak."*

Herri Lan, Garraio eta Komunikazioetako kontseilariaren martxoaren 23ko 285/2005 Foru Aginduaren bidez (43. NAO, 2005eko apirilaren 11koa), hasiera eman zitzaion "Garraioaren Hiria Handitzeko Udalez gaindiko Plana"k ukituriko ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzapenaren prozeduraren tramitazioari. Plan hori Ciudad del Transporte de Pamplona, S.A. sozietateak sustatu zuen.

Herri Lan, Garraio eta Komunikazioetako kontseilariaren urtarrilaren 11ko 2/2006 Foru Aginduaren bidez, Iruñeko Garraioaren Hiria Handitzeko Planaren jendaurreko aldia bukatutzat eman, eta desjabetzapenak ukituriko ondasun eta eskubideen zerrenda behin betikoz onetsi zen. Plan hori Ciudad del Transporte de Pamplona, S.A. sozietateak sustatu zuen. Halaber, ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egin zitzaien okupatu aitzineko aktak egiteko.

Ukituriko ondasun eta eskubideak okupatu aitzineko aktak egin ziren Noain Elortzibarko eta Beriaingo udaletxeetan 2006ko otsailaren 13, 14 eta 15ean. Otsailaren 23an aurretiazko gordailuak eta azkar okupatzearen ondoriozko kalte-ordainak ordaindu ziren. Egun horretatik aurrera, jadanik finketan sartu eta horiek okupa zitezkeen, behar ziren lanak eta aurretiazko azterlanak egiteko.

2006ko apirilean ahaleginak egin ziren jabeekin akordio adiskidetsuak lortzeko. 13 € eskaini ziren m²-ko, jabari osoko desjabetzapenetarako; eta 1,44 € m²-ko, berriz, zortasunetarako. Jabeetako inork ez zuen onartu prezio hori. Ukitutakoek 2006ko maiatzaren 30ean aurkeztu zituzten beren prezio-orriak, eta horietan 50,79 eta 57,09 € arteko balorazioa egin zuten m²-ko.

2006ko urriaren 24an, Administrazioaren prezio-orria onetsi zen 1174/2006 Ebazpenaren bidez, 11,02 €/m²-ko prezioa ezartzen zuena. Ukitutakoek alegazioak aurkeztu zituzten hilabeteko epean, baina horiek ezetsi egin ziren. Horrenbestez, Administrazioaren prezio-orriaren berrespena aurkeztu zen.

2007ko urtarrilaren 4an, akordio adiskidetsurik lortu ez zenez, espediente osoa bidali zitzaion Desjabetzapeneko Epaimahaiari, izapidetu zedin, Administrazioaren prezio-orriarekin eta jabe desjabetuen orriekin batera.

**3. Desjabetze-prozesuan ezarritako eta gordailatutako edo ordaindutako prezioak zeintzuk izan ziren, eta Garraioaren Hiriaren lau faseetan ordainketa horiek zein datatan egin ziren.**

| **1. desjabetzapena - 2. fasea** | | |
|---|---|---|
| **Data** | **Kontzeptua** | **Zenbatekoa** |
| 1995eko aza. | Aurretiazko gordailuak eta azkar okupatzearen ondoriozko kalte-ordainak | 141.542 € |
| 1997ko ira. | % 10 Noaingo Udala | 420.708 € |
| 1998ko ots. | Desjabetzapeneko Epaimahaiaren erabakia: 1,77 €/m$^2$ + % 5eko ukipen saria (1,86 €/m$^2$) | 1.393.993 € |
| 2002 | Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiak desjabetuen errekurtsoak onetsi zituen, Desjabetzapeneko Epaimahaiaren erabakia baliogabetu zuen, eta 12,64 €/m$^2$ eta 20,60 €/m$^2$ arteko prezioak gehi legezko korrituek dakartzaten zenbatekoak ezarri zituen. | |
| 2002/2003 | Auzitegi Gorenari aurkeztutako kasazio errekurtsoak | |
| 2003/2004/2005 | Auzitegi Gorenak kasazio errekurtsoak ezetsi zituen. | |
| 2005/2006 | 12,64 eta 20,60 €/m$^2$ arteko prezioak ordaindu ziren. | 14.594.412 € |
| | **1. desjabetzapena - 2. fasea, guztira** | **16.550.655 €** |

| **Desjabetzapena handitzea - 3. eta 4. faseak** | | |
|---|---|---|
| **Data** | **Kontzeptua** | **Zenbatekoa** |
| 2006ko ots. | Aurretiazko gordailuak eta azkar okupatzearen ondoriozko kalte-ordainak | 314.955 € |
| 2006ko urr. | Administrazioaren prezio-orria: 11,02 €/m$^2$ + % 5eko ukipen saria | |
| 2007ko eka. eta uzt. | Ordainketa: 11,02 €/m$^2$ + % 5eko ukipen saria | 11.652.136 € |
| 2008 | Desjabetzapeneko Epaimahaiaren epaia: 20,01 €/m$^2$ + % 5eko ukipen saria. Gordailu gisa eman zen | 11.526.988 € |
| 2009-2010 | Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiek Epaimahaiak ordaindu beharreko prezio hori (20,01 €/m$^2$ + % 5eko ukipen saria) berretsi zuten. | |
| | **Desjabetzapena handitzea, guztira** | **23.494.079 €** |

**4. Ea daukazuen informazioaren arabera uste duzuen Desjabetzapeneko Epaimahaiak Nafarroako Gobernuarekiko autonomiaz eta independentziaz ezartzen dituela bere prezioak.**

Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak honako hau xedatu du:

*“126. artikulua. Nafarroako Desjabetzapeneko Epaimahaia.*

*1. Nafarroako Desjabetzapeneko Epaimahaia arduratuko da, eta erabakiko du, Nafarroako administrazio publikoek egiten dituzten mota guztietako desjabetzapenetan sortzen diren balio justuko espedienteen gainean. Nafarroako lurraldean Estatuaren administrazioak egiten dituen desjabetzapenetan sortzen diren balio justuko espedienteen gainean, administrazio horrekin hala hitzartzen delarik hartuko du esku Nafarroako Desjabetzapeneko Epaimahaiak.*

*5. Nafarroako Desjabetzapeneko Epaimahaiak, jabeek eta administrazioak formulaturiko preziamendu-orriak ikusirik, erabaki betearazleak hartuko ditu desjabetzapenaren xede diren ondasun eta eskubideen balio justuaren gainean, gehienez ere lau hilabeteko epean. Epe hori igarotzen bada ez ebazpenik ez jakinarazpenik egin gabe, ulertuko da jabeek formulaturiko preziamendu-orrietako eskaera ezetsi dela.*

*6. Nafarroako Desjabetzapeneko Epaimahaiaren ebazpenek nahitaez arrazoituak beharko baitute izan, aplikatzekoa den legerian xedatutakoan oinarriturik erabilitako balorazio irizpideak eman beharko dira.*

Jurisprudentzia askok honako hau adierazi du: “*Nahitaezko Desjabetzapeneko Epaimahaien erabakiek egiazkotasun, legezkotasun eta doitasun presuntzioa daukate. Horrenbestez, haien erabakiek Epaimahaien osaera bikoitzetik (teknikoa eta juridikoa) eta haien iraunkortasunetik eta espezializaziotik eratorritako kredituaz eta itzalaz hartuak izatea merezi dute”.*

Horri dagokionez, Auzitegi Gorenaren 2010eko urriaren 23ko epaiak honako hau ezarri du: *“doitasun presuntzioa –”iuris tantum” dena, jakina– Desjabetzapeneko Epaimahaien erabakiei aitortzen zaie prezio justuaren arloan, bai horiek osatzen dituzten kideen objektibotasun, inpartzialtasun eta jakintzengatik, bai administrazio egintzek daukaten zilegitasunagatik. Presuntzio hori errespetatu egin behar da erabaki horiei egozten zaizkien akatsak behar bezala egiaztatzen ez diren bitartean, eta, horren ondorioz, ondoriozta daiteke administrazio erabaki horiei eutsi egin beharko zaiela, horietan aipatzen diren irizpideek akats faktikorik edo juridikorik ez badaukate edo jarduketetan dauden elementuen balioespen okerrik egiten ez badute”.*

**5. Ea ezagutzen duzuen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak horri buruz emandako lehen epaiaren zentzua eta epai horrek ezarritako balioa.**

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salaren 2010eko urriaren 15eko lehenengo epaiak Desjabetzapeneko Epaimahaiaren erabakia berretsi zuen. Epaimahaiaren erabakiaren eta epaiaren kopiak erantsi dira. (2. eranskina)

**6. Ea ziur dakizuen ezen, Auzitegi Gorenaren epaiaren ondoren eta Salak peritu berri bat izendatu ondoren –Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epai horren bidez ezarritako prezioaren bikoitza baino gehiagokoa ezarri zuena–, soilik zeudela Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak emandako aldeko epai bat eta Auzitegi Gorenaren epai bat, zeinak ez baitzuen prezio handiago bat ezartzen, baizik eta aurreko auzitegiari pasatzen baitzion prezioa beste irizpide tekniko batzuen arabera birkalkulatzeko betebeharra.**

Bai. Auzitegi Gorenaren 2012ko azaroaren 14ko epaia erantsi da. (3. eranskina)

**7. Ea ziur dakizuen prozeduraren une hartan prozeduran esku hartzeko zegoen aukera bakarra zela peritu-txosten hari alegazioak aurkeztea; are gehiago, harekin ados ez egonez gero.**

Bai, aukera bakarra zen; bestela, amore eman behar zen.

**8. Ea ziur dakizuen Gobernuaren Aholkularitza Juridiko Zentrala izan zela peritu-txosten haren aurkako alegazioak aurkeztu zituena, Garraioaren Hiriaren proiektuaren ardura zeukan sozietate publikoaz gain. Ea ziur dakizuen Nafarroako Gobernuak berak nahiz Nasuvinsa sozietatearen administrazio-kontseiluak txostenaren idazketan parte hartu ote zuten.**

Aholkularitza juridikoaren erantzuna erantsi da. (4. eranskina)

**9. Aholkularitza juridikoak nahiz NASUVINSAren legezko ordezkaritzak aurkeztutako alegazioak eskatzen ditugu.**

Aholkularitza juridikoak nahiz NASUVINSAk aurkeztutako alegazioak aurkeztu dira (5. eranskina).

**10. Ea uste duzuen prozedura honetan, behin peritu-txosten berria bidalita, txosten horri ez zitzaiola alegaziorik aurkeztu beharko, eta hortaz hura ontzat jo beharko zela eta, orduan, epai berri baten zain gelditu gabe, Nafarroako Gobernuaren eledunak adierazi zuen bezala, "kaltetutako partikularrekin mahai batean eseri beharko zen konponbide bat negoziatzeko, beharbada denen onerako izanen zena eta gaur daukagun egoera honetara ekarriko ez gintuena".**

Alegazioak, izan ere, Administrazioak aurkeztu zituen, horrelako edozein auzigaitan ohiko suertatzen ari den bezala.

Administrazioak ez ohi du "negoziatu" berak defendatzen duen prezioa baino handiago bat errekurtsogileei zenbateko handiago bat ordaintze aldera, azken batean emanen den epaiaren esperoan egonda.

**11. Ea uste duzuen Nasuvinsaren administrazio kontseiluak uko egin beharko ziola, bere erantzukizuna betez, alegazio-idazki bat aurkezteari, eta arestiko puntuan adierazten den moduan jokatu.**

Uste dugu ezetz.

**12. Hala baldin bada, jakin nahi dut ea gaur egungo Nafarroako Gobernuak zergatik iragartzen duen orain epai horren aurkako errekurtso bat jarriko duela Auzitegi Gorenean eta zergatik ez den jotzen aipatu negoziaziora.**

Logikoa denez, asmoa administrazioarekiko auzibidea amaitzea da.

**13. Ea badakizuen Nafarroako Gobernuak diru-kantitate handi bat gorde ote zuen aurrekontuan, balizko aurkako epai baten inpaktua moteltzeko, eta zein izan zen haren zenbatekoa. Ea badakizuen, halaber, Gobernuak erabaki ote zuen balizko aurkako epai baten kostua bere gain hartzea, halatan eraginik izan ez zezan Nasuvinsa sozietate publikoan.**

Gobernuaren 2015eko martxoaren 18ko erabakia erantsi da. (6. eranskina)

**14. Desjabetze hori gertatu zen urteetan Nasuvinsa sozietate publikoak etorkizuneko industria-erabileretarako lur-desjabetzeko prozesuetan ordaindu zituen prezioak eskatzen ditut, aurreko hiru urteetakoak eta geroko guztietakoak barne.**

Etorkizuneko industria-erabileretarako lurzoruak desjabetzeko prozesuetan Nasuvinsa sozietate publikoak ordaindutako prezio unitarioak:

| Desjabetzapen proiektua | Balio justua: €/m² (ukipen saririk gabe) | Data Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia | Oharrak |
|---|---|---|---|
| ARAZURI-ORKOIEN | 27,05 | 2002 | |
| COMARCA-2 | 12,75 | 2005 | |
| MESETA DE SALINAS | 9,71-25,03 -29,87 | 2011 | Hiru prezio ezberdin |
| ROCAFORTE-2 | 5,89 | *2012* | *NDEren erabakia* |
| URDIAIN-ALTSASU | 2,76 | *2014* | *NDEren erabakia, Justizia Auzitegi Nagusian kontrako errekurtsoa hartu duena* |

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

# Galdera, zuntz optikoko sareek Nafarroan duten garapenari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, zuntz optikoko sareek Nafarroan duten garapenari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 4ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko martxoaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikitako foru parlamentari Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak informazio-eskaria aurkeztu du (9-16/PES-00095). Honako hauek jakin nahi ditu:

1. Zuntz optikoko sareek, bai publikoek bai pribatuek, Nafarroako Foru Komunitatean duten garapenari buruz eskuragarri dagoen informazio grafiko eta idatzia, sare nagusiak eta banaketakoak bereizita.

2. Enpresa-jarduerak kokatuta dauden eremu edo industrialdeetan sare horiek duten hedapenari buruz eskuragarri dagoen informazio grafikoa eta idatzia.

3. Nafarroako Gobernuaren edo haren sozietate publikoen ekipamendu, zuzkidura eta bulego publikoetan sare horiek duten hedapenari buruz eskuragarri dagoen informazio grafikoa eta idatzia.

4. Sare horiek gure erkidegoan hedatzeko planei buruz eskuragarri dagoen informazioa; bereziki, sare publikoari dagokionez.

Hauxe da Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko zuntz optikoko sareei buruz daukan informazioa bere sare publikoari dagokiona da. Horri buruz informatuko dugu ondoren. Operadore pribatuen sareen hedapena dela eta, zuntz optikoko sareen (HFC edo FTTH) estaldurari buruzko informazioa kontsulta daiteke Industria, Energia eta Turismo Ministerioak autonomia erkidego bakoitzerako jakitera ematen duen banda zabalaren estaldurari buruzko informazioaren barruan. Ondoren txertatu dugun estekan dago Nafarroari buruzko 2015eko informazioa.

http://www.minetur.gob.es/telecomunicaciones/banda-ancha/cobertura/Datos%202015/navarra.pdf

Nafarroako Gobernuaren sarea

Nafarroako Gobernuak, gaur egun, zuntz optikoko sare bat dauka ahots- eta datu-zerbitzuak bere buruari emateko. Sare horrek honako ardatz nagusi hauek dauzka (horien banaketa edo adarrak aurrerago zehaztu dugu, sare hori iristen deneko Nafarroako Gobernuaren egoitzei buruzko atalean):

• Iruñeko ingurabideak (Uharte – Orkoien).

• Noain – Tutera.

• Zizur – Lizarra.

• Iruña – Ezkabako Telekomunikazio Zentroa.

• Noain – Elomendi (2016an amaituko dela aurreikusi da).

• Lizarra – Viana (autobiaren emakidaduna).

• Elo – Esa (autobiaren emakidaduna).

Guztira, ardatz nagusiek zuntz optikoko 225 km egiten dituzte.




Industrialdeetako zuntz optikoa

Bestalde, sareak presentzia dauka Iruñeko ingurabideetan dauden ondoren aipatzen diren industrialdeetan eta Iruña – Tutera, Iruña – Lizarra eta Iruña – Esa ardatzetan. Gaur egun, industrialde horietan ez da zerbitzurik ematen, baina zuntza arketetan jarrita dago, beharrezkoa bada erabili ahal izateko.

| Industrialdeetako guneak | Ardatza |
|---|---|
| Aratzuri-Orkoiengo Industrialdea | **PA-30, Iruñeko ingurabidea** |
| Ipertegi I Industrialdea | |
| Ipertegi II Industrialdea | |
| Eskualdea I Industrialdea (Agustindarrak) | |
| Mocholi Industrialdea | **A-21 Jakako autobia** |
| Eskualdea II Industrialdea | |
| Getzeko Ordokia Industrialdea (segregazioa aurreikusi da) | |
| Fuente del Rey Industrialdea (Tafalla Iparraldea) | **AP15 Iruña-Tutera** |
| Montes de Cierzo Industrialdea | |
| La Serna Industrialdea, Las Labradas Industrialdea | |
| Aloa Industrialdea (Gares) | **A12 Iruña-Lizarra** |

Nafarroako Gobernuaren sareak

Zuntz optikoak zenbait adar dauzka eta honako herriei ematen die zerbitzua:

| Herria | Sareak |
|---|---|
| Iruña | 101 |
| Barañain | 2 |
| Atarrabia | 6 |
| Burlata | 8 |
| Berriozar | 1 |
| Noain | 1 |
| Antsoain | 1 |
| Tafalla | 4 |
| Lizarra | 2 |
| Tutera | 15 |

Egoitza horietan, Nafarroako Gobernuak bere buruari ahots- eta datu-zerbitzuak ematen dizkio, egoitza bakoitzeko 1 eta 10 Gbp bitarteko banda zabalarekin.

Hedatze-planak

Nafarroako Gobernuak zuntz-sarea hedatzeko planei dagokienez, une hauetan banda zabaleko plan bat egiten ari gara Komunitaterako, baina oraindik ere ez dira haren denbora- eta espazio-dimentsioak finkatu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko martxoaren 22an

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria: María José Beaumont Aristu

# Galdera, atzerriko hizkuntzetako irakasleen prestakuntzari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, atzerriko hizkuntzetako irakasleen prestakuntzari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 4ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko martxoaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeak 9-16/PES-00096 informazio-eskaria aurkeztu du. Hona hemen Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Planteatutako gaiari dagokionez –atzerriko hizkuntzetako irakasleentzako prestakuntza-jarduerei buruz eta Hezkuntza Departamentuak aurreikusitako epeei buruz galdetu da–, honako hau esan behar dugu:

Nafarroako irakasleen ingeleseko, frantseseko eta alemaneko kreditatzea eta egiaztatzea errazte aldera, Hezkuntza Departamentuak 275 toki betetzeko deia egin du, ingeleseko, frantseseko eta alemaneko B2 eta C1 mailetako ikastaroetarako, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxe publikoetan eta itunduetan lan egiten duten irakasleentzat. Ikastaro horiek Iruñeko eta Tuterako hizkuntza eskola ofizialen ikastaroen eskaintzaren barruan ematen ari dira.

Hizkuntzetako kreditaziora eta egiaztapenera zuzendutako prestakuntza hori Nafarroako beste eremu batzuetako irakasleei hurbiltzeko, Hizkuntzen eta Arte Ikasketen Zerbitzuak, “HINZri egindako enkargua. Atzerriko hizkuntzak sustatzeko ikastaroak eta jarduerak” izeneko 421002 42420 2269 322900 kontusaileko baliabideen kargura, ingeleseko eta frantseseko B2 eta C1 mailetako prestakuntza ikastaroak antolatu ditu, “Irakasleei beren eremuan hizkuntza-kreditazioa emateko programaren” barruan. Programa hori ILZekin batera antolatu da eta HINZk kudeatzen du.

“Atzerriko hizkuntzetako irakasleen prestakuntza” izeneko 421002 42420 2266 321200 kontusaila bideratzen da atzerriko hizkuntzen irakaskuntzarako programetan hasten diren ikastetxeetako irakasleen prestakuntza-ekintzak ordaintzera. Prestakuntza erdipresentzial hori Atzerriko Hizkuntzetako Ikaskuntza Programen bulegoko aholkulariek eramaten dute aurrera, eta hiru fasetan dago banatua. Hiru fase horiek ondoz ondoko hiru ikasturtetan garatzen dira, eta atzerriko hizkuntzako irakaskuntzaren alderdi metodologikoei ekiten

diete. Horren amaieran Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuaren prestakuntza dago, III. fasean.

Kontusail horren beraren kontura, Ingelesaren eta Atzerriko Beste Hizkuntza Batzuen Atalak, 2015eko azaroaren 21eko goizean, larunbatez, Musikaren Hirian, “Hizkuntza anitzeko testuinguruetarako metodologia jardunaldia” antolatu zuen, non 11 txostengilek parte hartu baitzuten 8 saiotan. Irakaskuntza maila desberdinetako 200 irakasle baino gehiago bertaratu ziren.

Gaur egun, hizkuntza anitzeko testuinguruetarako jokabide egokiei buruzko beste jardunaldi bat antolatzen ari da. Musikaren Hirian izanen da hori ere, maiatzaren 21ean, larunbatez.

“Atzerriko hizkuntzak hobetzeko ikastaroak” izeneko 421002 42420 2266 322900 kontusaila baliatzen da barnetegi gisako ikastaroak antolatzeko. Ikastaro horiek udan egiten dira, zenbait erakunderen laguntzarekin –besteak beste, Aliantza Frantsesarekin, Madrilen, eta Kontseilu Britainiarrarekin, Nafarroako aterpetxe batean–, frantseseko eta ingeleseko irakasleei EHII metodologietan prestakuntza emateko.

Kontusail horren barruan, Hizkuntzen eta Arte Ikasketen Zerbitzuak asteburuko barnetegiak antolatuko ditu Nafarroako aterpetxeetan, ingeleseko murgiltzea lortzeko, atzerriko hizkuntzetako irakaskuntza proiektuak dauzkaten ikastetxeetako irakasleentzat.

2015-2016 ikasturte honetako lehen hiruhilekoan zehar, irakasleei zuzendutako honako prestakuntza jarduera hauek egin dira:

– Nafarroako lehenengo eTwinning topaketa, 2015eko irailean.

– Erasmus+ programari buruzko saioa, Iruñeko ILZn, 2015eko azaroan.

– Erasmus+ programari buruzko saioa, Tuterako ILZn, 2015eko abenduan.

Planteatutako bigarren gaiari dagokionez –atzerriko hizkuntzetako irakasleentzako prestakuntza-jardueretarako laguntzei buruz eta Hezkuntza Departamentuak aurreikusitako epeei buruz galdetu da–, honako hau esan behar dugu:

“Atzerriko hizkuntzetako irakasleentzako prestakuntzarako laguntzak” izeneko 421002 42420 4809 321202 kontusailaren bitartez, Hezkuntza Departamentuak 40 laguntza bitarte emateko deialdia eginen du, 2016ko udan prestakuntza-ikastaroak egiteko atzerriko ikastetxe eta unibertsitateetan. Foru Komunitateko haur hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan eta hizkuntza eskola ofizialetan atzerriko hizkuntzak (ingelesa, frantsesa, alemana) edo atzerriko hizkuntzetan (PAI, PAL eta SSBB) irakasten diharduten irakasleentzat dira.

Europako programak eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioarekin baterako lurraldelankidetzako programak direla-eta eskainitako laguntzei dagokienez, irakasle nafarrek honako deialdietan parte hartu dezakete:

– 2 asteko lanbide-egonaldiak Europar Batasuneko ikastetxeetan (2016eko otsailaren 4ko Ebazpena, 2016ko martxoaren 9ko 59. EAO). Eskabideak aurkezteko epea 2016ko martxoaren 29ra arte dago irekita. Izapidetzea Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren egoitza elektronikoaren bitartez egiten da.

– Europar Batasuneko herrialdeetan prestakuntza-ekitaldiak, eTwinning programaren esparruan. Programa horrek lankidetza birtualeko proiektuak sustatzen ditu Europar Batasuneko ikastetxeen artean (2016eko otsailaren 15eko Ebazpena). Epea 2016ko martxoaren 21era arte egonen da zabalik, eta eskabidea Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko da.

– Irakasleen mugikortasun proiektuak, Erasmus+ programako Klabe 1 ekintzaren (KA1) esparruan. Eskabidea linean egin beharrekoa zen, eta epea 2016ko otsailaren 2an amaitu zen.

2015-2016 ikasturtean zehar, 22 prestakuntza jarduera antolatu dira atzerriko hizkuntzen irakaskuntzari buruz Iruñeko ILZn. Jarduera horiek Nafarroako irakasle guztientzat zeuden zabalik, ez soilik Iruñeko ILZren esparrukoentzat.

Frantsesez 4 prestakuntza jarduera daude; ingelesez, 15, eta gaztelaniaz, berriz, 3.

| Prestakuntza jarduerak | Hizkuntza | Orduak | Maila |
|---|---|---|---|
| Frantsesa irakatsi antzerkiaren bidez | frantsesa | 8 | bigarren hezkuntza |
| frantses 1eko mintza taldea | frantsesa | 35 | Guztiak |
| frantses 2ko mintza taldea | frantsesa | 35 | Guztiak |
| TV5MONDE erabiltzea frantses eskoletan | frantsesa | 9 | lehen eta bigarren hezkuntza |
| Creative Writing Gamens & Activities | ingelesa | 15 | bigarren hezkuntza |
| How to Assess Skills and Content in the Natural Science Classroom in Primary | ingelesa | 10 | lehen hezkuntza |
| Learning Through Phonics | ingelesa | 15 | haur eta lehen hezkuntza |
| B2 ingeleseko mintza taldea | ingelesa | 35 | Guztiak |
| C1 ingeleseko mintza taldea | ingelesa | 35 | Guztiak |
| B2 + C1 ingeleseko mintza taldea | ingelesa | 35 | Guztiak |
| Learning Centers in PAI Classrooms | ingelesa | 12 | haurrena |
| Cinema Club | ingelesa | 35 | Guztiak |
| Reading Club | ingelesa | 35 | Guztiak |
| Resources for Bilingual Program Teachers: A Practical Approach to ICTs | ingelesa | 35 | bigarren hezkuntza |
| Sound Foundations: A Practical Introduction to English Phonology | ingelesa | 10 | Guztiak |
| Lankidetza-tresnei/on line tresnei buruzko tailer praktikoa, atzerriko hizkuntzetako ikasgelan | ingelesa | 10 | lehen eta bigarren hezkuntza |
| Jolly Phonics | ingelesa | 12 | haur eta lehen hezkuntza |
| Beyond Words, Harmonious Classroom Management in Primary | ingelesa | 10 | lehen hezkuntza |
| Storytelling Techniques to Stimulate Interest in the EFL Classroom | ingelesa | 10 | bigarren hezkuntza |
| Baliabide didaktikoak eta dinamika ikasgelan | gaztelania | 8 | Hizkuntza eskola ofizialak |
| Hizkuntza eskola ofizialeko aztertzaileen gaikuntza | ingelesa | 35 | Hizkuntza eskola ofizialetako kontratazio zerrendetako irakasleak |
| Hizkuntza eskola ofizialeko aztertzaileen gaikuntza | euskara | 35 | Hizkuntza eskola ofizialetako kontratazio zerrendetako irakasleak |

Horiezaz gainera, Nafarroako beste herri batzuetako ILZek ikastaroak antolatzen dituzte, baina horiek soilik ILZ bakoitzeko eragin-esparruko irakasleei eskaintzen zaizkie.

Iruñean, 2016ko martxoaren 22an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

# Galdera, atzerriko hizkuntzen sustapenerako Hezkuntza Departamentuaren ikastaro eta jarduerei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, atzerriko hizkuntzen sustapenerako Hezkuntza Departamentuaren ikastaro eta jarduerei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 4ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko martxoaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeak 9-16/PES-00097 informazio-eskaria aurkeztu du. Hona hemen Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Planteatutako gaiari dagokionez – Hizkuntzen Ikaskuntzako Nafarroako Zentroari enkargatuta atzerriko hizkuntzak sustatzeko ikastaro eta jarduerak direla-eta Departamentuak aurreikusitako jarduera eta epeei buruz galdetu da–, esan beharra dago Nafarroako Parlamentuak onetsitako aurrekontuetako “HINZri egindako enkargua. Atzerriko hizkuntzak sustatzeko ikastaroak eta jarduerak” izeneko 421002 42420 2269 322900 kontusailarekin honako jarduerak egiten ari direla:

Ingeleseko kreditaziora eta egiaztapenera zuzendutako prestakuntza hori hurbiltzeko, ingeleseko eta frantseseko B2 eta C1 mailetako prestakuntza ikastaroak antolatu dira, “Irakasleei beren eremuan hizkuntza-kreditazioa emateko programaren” barruan. Programa hori ILZekin batera antolatu da eta HINZk kudeatzen du. Ikastaro horiek Corellan, Lizarran, Irunberrin, Tafallan eta San Adrianen eskaintzen dira.

Hizkuntzen eta Arte Ikasketen Zerbitzuak CNAI enkargatu dio “English Week” murgiltze-programaren zerbitzua eman dezala Nafarroako ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleentzat, 2016. ikasturtean zehar. Gaur egun, programa hori 2016ko otsailetik maiatzera ematen ari da, eta aurreikusita dago udazkenean berriz abiatzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 22an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

# Galdera, atzerriko hizkuntzen erabilera hobetzeko ikastaroei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, atzerriko hizkuntzen erabilera hobetzeko ikastaroei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 4ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko martxoaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeak 9-16/PES-00098 informazio-eskaria aurkeztu du. Hona hemen Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Galdetutako gaiari dagokionez –atzerriko hizkuntzen erabilera hobetzeko ikastaro eta jarduerak direla-eta Departamentuak aurreikusitako ikastaro eta jarduerei eta haietarako epeei buruz galdetu da–, honakoa esan behar dugu:

Berriki Nafarroako Parlamentuak onetsi dituen aurrekontuetako “HINZri egindako enkargua. Atzerriko hizkuntzak sustatzeko ikastaroak eta jarduerak” izeneko 421002 42420 2269 322900 kontusailaren ildoan, Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiak onetsi du “English Week” Nafarroako ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleentzako murgiltze programarako dei egitea. 2016. urtean zehar gauzatuko da programa hori. Gaur egun, programa hori 2016ko otsailetik maiatzera ematen da, eta udazkenean berriz abiatuko da. Deialdiak murgiltze gisako 30 aste planteatzen ditu, 80 ikasleko taldeentzat, Nafarroako aterpetxeetan. 2.400 parte-hartzaileen hizkuntza-murgilketa lortzen da horrela.

Gaur egun, indarrean jarraitzen du HINZri egindako enkargua, programako zerbitzua ematekoa, 18 astez. Horren bidez, 1.600 ikasleri ematen zaie zerbitzua. Aurreikusita dago udazkenean 12 txandetarako beste enkargu bat egitea, 800 ikasleri zerbitzua emateko.

Gainera, Nafarroako bi ikastetxe badaude (Benjamín de Tudela BHIa eta Iruñeko San Cernin Ikastetxea) Bachiller-Baccalauréat (Bachibac) titulazio bikoitzeko ikasketak ezarrita dituztenak, 2015-2016 ikasturtean. Haietan, Batxilergoko 1. eta 2. mailako 44 ikaslek hartzen dute parte.

Halaber, martxoaren 3ko 56/2016 Ebazpenak, Frantzian 2016-2017 ikasturte osoa ikasteko deialdia onetsi du, lehen hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 1., 2. eta 3. mailako 50 ikaslerentzat, gehienez ere. Eskabideak aurkezteko epea 2016ko martxoaren 14an amaitu zen.

Martxoaren 10eko 68/2016 Ebazpenak Frantziarekin elkarrekiko truke-programarako deia onetsi zuen DBHko 3. mailako ikasleentzat, gehienez ere 20 ikasle-posturako. Eskabideak aurkezteko epea martxoaren 21ean amaitu zen.

Azkenik, lehen hezkuntzako 6. mailako ikasleek eta DBHko 2. mailakoek Hezkuntza, Zientzia eta Kirol Ministerioaren udazkeneko murgiltze-programan parte hartu dezakete, ministerio horren lurralde-lankidetzarako programen esparruan. 25 ikasleren taldeek ingelesezko murgiltze-egonaldi bat egiten dute lurralde nazionaleko aterpetxe eta egoitzetan urtero, udazken partean. Nafarroako Foru Komunitateak 2 ikasle-postu dauzka erreserbatuta lehen hezkuntzako 6. mailako ikasle-taldeentzat eta beste bi ikasle-postu, berriz, DBHko 2. mailako ikasle-taldeentzat.

Iruñean, 2016ko martxoaren 22an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko ekografiako eta erresonantziako proba diagnostikoetako itxarote-zerrendei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko ekografiako eta erresonantziako proba diagnostikoetako itxarote-zerrendei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 11ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higueras jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16/PES-00099). Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariaren informazioa:

1. Zer itxarote-zerrenda egon da 2015eko uztailean, abuztuan, irailean, urrian, azaroan eta abenduan Tuterako Reina Sofía Ospitaleko ekografia eta erresonantzia bidezko proba diagnostikoetan?

| 2015 | Uztaila | Abuztua | Iraila | Urria | Azaroa | Abendua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Ekografia | 1032 | 1089 | 1289 | 1415 | 1640 | 1868 |
| Erresonantzia | 1307 | 1290 | 1534 | 1544 | 1625 | 1777 |

2. Zein da, 2016ko urtarrilean eta otsailean, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko ekografia eta erresonantzia bidezko proba diagnostikoetarako itxarote-zerrenda?

| 2016 | Urtarrila | Otsaila | Martxoa |
|---|---|---|---|
| Ekografia | 2032 | 2058 | 2038 |
| Erresonantzia | 1859 | 1799 | 1489 |

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

## Galdera, TRW enpresaren ordezkariaren agerraldiaren ostean haren aurka izandako istiluei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Sergio Sayas López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, TRW enpresaren ordezkariaren agerraldiaren ostean haren aurka izandako istiluei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 11ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Aipatutako galderari erantzuteko, Nafarroako Foruzaingoko buruaren txosten erantsi dut.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

2016ko apirilaren 5ean

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria: María José Beaumont Aristu

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariek, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman).

# Galdera, Lizarrako Remontival ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lizarrako Remontival ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programa eskaintzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 11ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko martxoaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeak 9-16/PES-00101 informazio-eskaria aurkeztu du. Hona hemen Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Hezkuntza Departamentuaren Plangintza Zerbitzuak, 2016-2017 ikasturterako aurreinskripzioari begira, 3 urteko ikasleen bi unitateren aurreikuspena egin zuen (50 eskola-postu), A/G eredurako, ingelesez ikasteko programarekin, Lizarrako Remontival ikastetxe publikoan.

Aurreinskripzioa amaituta, eta jasotako eskabideak ikusita, aipatutako zerbitzua harremanetan jarri zen ikastetxearekin, hari adierazteko ezen, ikastetxeari atxikita ez zeuden herrietatik heldutako ikasleen onarpenak aurreikusitako unitateak handitzea baldin bazekarren, ezin izanen zituela eskabide horiek onartu. Onartu behar ez ziren eskabideak Antzin, Deikaztelu eta Villatuertakoak ziren. Inoiz ere ez zaio ikastetxeari eskatu eskabideak barematzeko.

Ikastetxetik gaiari buruzko informazioa jasota, egiaztatu zen ezen, eskabideak onartu gabe ere, Lizarratik eta atxikitako gainerako herrietatik heldutako 3 urteko ikasleen kopurua nahikoa zela bi unitate eskaintzearen ordez 3 unitate eskaintzeko. Hori dela eta, 2016ko otsailaren 19an, unitate kopurua handitu zen, eta ikastetxeari horren berri eman zitzaion, jasota zituen eskabide guztiak onar zitzan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 23an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

# Galdera, Nafarroako ikastetxeetan etorkinei eta gutxiengo soziokulturalki kaltetuei laguntza ematera Hezkuntza Departamentuak bideratutako aurrekontuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako ikastetxeetan etorkinei eta gutxiengo soziokulturalki kaltetuei laguntza ematera Hezkuntza Departamentuak bideratutako aurrekontuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 11ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

UPN parlamentu-taldeak 9-16/PES-00102 informazio-eskaria egin du, non jakin nahi baita zenbateko aurrekontua erabiltzen duen Hezkuntza Departamentuak Nafarroako ikastetxeetan etorkinei eta gutxiengo soziokulturalki kaltetuei laguntzeko, eta zein jarduera eta dotaziotan erabiltzen duen. Hauxe da Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak emateko duen informazioa:

Gaiari buruz, esan behar dugu erantzuna mugatuko dugula Hezkuntza Departamentuak ikasle horiei artatzeko egiten dituen berariazko jarduketetara.

Etorkinei eta gutxiengo soziokulturalki kaltetuei eman beharreko laguntza berariaz jasota dago 2007-2011 urteetan “Nafarroan irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko Ituna” izenekoan. Zehazki, haren Aniztasunarekiko arretarako neurriei buruzko 4. puntuan, honako hau ezartzen da:

“18 edo hortik gorako ildo eta ratio bat edo bat baino gehiago duten Haur eta Lehen Hezkuntzako eskolek laguntzako irakasle 1 izango dute, hezkuntza-laguntzako premia espezifikoaren ikasleen %10-20 artean badute (etorkinak, esparru sozial eta kulturalean gutxietsitako gutxiengoak, etab.) 1,5 laguntza-irakasle hezkuntza-laguntzako premia espezifikoaren ikasleen %20-30 artean badute eta 2 laguntza-irakasle, hezkuntza-laguntzako premia espezifikoaren ikasleen %30etik gora badute.”

Itun horren indarraldia amaitu den arren, ikastetxe publikoetako irakasleen plantilletan ikasle horiei arreta emateko irakasleak jasotzen jarraitzen da. 2015-2016 ikasturtean, Nafarroako ikastetxe publikoetan ikasle kaltetuei laguntza emateko programako irakasleen plantilla 88,5 irakaslerena da, 3,5 milioi euroko gutxi gorabeherako kostuarekin.

Datorren ikasturterako, irakasleen dotazio berari eusten zaio.

Ikastetxe itunduei dagokienez, 2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, immigrazio eta kultur gutxiengoetarako kontusailaren barruan, ikastetxe hauei 546.678 euroko zenbatekoa bideratu zaie xede horietarako.

Bestalde, Hezkuntza Departamentuak, ikasturte bakoitzean, hezkuntza bereziko beken eta hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleendako laguntzen deialdia onesten du. Ikasturte honetan, abenduaren 190/2015 Ebazpena da.

Ebazpen horren eranskinean, II. puntuak ezartzen du zein diren hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleentzako laguntzak. Premia horiek direla eta zehaztutako kasuistikaren barruan, honako hau ageri da:

“Curriculumean bi kurtsoko edo gehiagoko atzerapena ekarri duten ikasteko berariazko zailtasunak”. Atal honetan sar genitzake orain aipagai dauzkagun ikasleak.

Ebazpenak ezartzen du baimena ematen dela gehienez ere 165.000 euroko gastua egiteko haur eta lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako etapetan, “Bekak eta hezkuntza berezirako laguntzak” izeneko kontusailaren kargura.

Ebazpen horretan ezarritako gehieneko zenbatekoa izan arren, oro har hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleei, oro har, zuzenduta dagonez, oso zaila da zehaztea zenbat bideratzen den berariaz ikasle etorkinentzat edo soziokulturalki kaltetutako gutxiengoetako ikasleentzat.

Azkenik, bigarren hezkuntzan, irakasle batzuek jarduten dute, besteak beste, ikasle etorkinak eta soziokulturalki kaltetutako gutxiengoetako ikasleak artatzen, PILE (hizkuntza-murgiltzea), PROA, PIPE edo Oinarrizko LH bezalako programen bitartez, bai sare publikoan, bai itunpeko sarean ere. Hala eta guztiz ere, neurri horien kostua zenbatesten zaila da, zeren eta horrelako neurriak gisa guztietako ikasleek hartzen baitituzte.

Iruñean, 2016ko apirilaren 6an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## Galdera, itxarote-zerrendak murrizte aldera “peonada” deritzen arratsaldeko lanaldiak ezartzeari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Begoña Ganuza Bernaola andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, itxarote-zerrendak murrizte aldera “peonada” deritzen arratsaldeko lanaldiak ezartzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 18ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Begoña Ganuza Bernaola andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16/PES-00103), jakin nahi baitu ea “Osasun Departamentuak aurreikusita daukan itxarote-zerrendak murrizte aldera peonada deritzen arratsaldeko lanaldiak ezartzea”. Hauxe da Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

Osasun Departamentuak, kontseilariak behin baino gehiagotan adierazi duen bezala, aurreikusita dauka autoituntzera jotzea soilik aparteko izaeraz itxarote-zerrendak gutxitzeko bide gisa, gainerako formulak (profesionalak kontratatzea, deribazioa eta abar) ezinezko direnean, eta aldez aurretik jardueraren egiturazko nahikotasuna bermatu denean epe ertain eta luzeko emaitzak finkatzeko eta dauden baliabideak ahal den guztian baliatu direnean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko apirilaren 5ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

---

## Galdera, profesionalen eta gaixoen parte-hartzea hobetze aldera Osasun Departamentuak sortuko dituen foroei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Begoña Ganuza Bernaola andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, profesionalen eta gaixoen parte-hartzea hobetze aldera Osasun Departamentuak sortuko dituen foroei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 18ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Begoña Ganuza Bernaola andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00104). Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariaren informazioa:

**1. galdera. Osasun Departamentuak zer foro eta noiz sortuko ditu, daudenez aparte, profesionalen eta gaixoen parte-hartzea hobetzeko?**

– Epe labur eta ertainean parte-hartze prozesu zabalak jarriko dira abian, profesionalen artean ahal den adostasun handiena sustatzeko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren etorkizunerako funtsezkoak diren alderdiei buruz; honako hauek, zehazki:

– O-NOZen ezartzekoa den autokudeaketarako eta ebaluazio klinikorako eredua (hasita dago jada).

– Gaixoari bideratutako arlotean eta diziplina anitzeko unitateetan oinarritutako ospitale-antolakuntza (2016).

– Oinarrizko osasun laguntzaren egitura eta funtzionamendua eta konponbideak emateko ahalmena (2017).

– Itxarote-zerrendetarako estrategia (2017).

– Berriki erabaki da O-NOZen Gobernu Kontseiluan sartzea Nafarroako Osasun Kontseiluak proposatuta izendatutako profesionalak.

– Osasun barrutietako osasun kontseiluetan batzorde tekniko laguntzakoak ordezkatzeko osasun langileak sartuko dira.

– Lanbide elkargoen entzunaldia bermatzeko konpromisoa hartu dugu izaera orokorreko planak eta programak egin, aldatu eta berrikusteko garaian.

– Aurreikusita dago urtean Osasun Foroaren hiru edizio egitea, bai eta profesionalek eta gaixoek interes handieneko gaietan batera parte hartzeko beste tresna batzuk ere.

– Bermatuko da arauak, planak eta proiektuak jendaurrean jarriko direla. Gainera, antolamenduan eragin aipagarria duten proiektuak zuzenean profesionalei aurkeztuko zaizkie, berriki Sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko foru dekretuarekin egin den bezala.

– Eskualdeko eta barrutiko osasun kontseiluen osaera eta eginkizunak berraztertuko dira, haiek garai berrietara egokituz.

– Hasi gara gaixoen elkarteetako ordezkariak sartzen lanerako komite eta talde teknikoetan: burmuineko kaleta, diabetesa eta abar.

– Elkarteekiko bilera egituratuak sistematikoki garatuko dira.

– Osasun Atarian Emaitzen Zentrala garatzea, kontuak emateari begira.

– Nafarroako Osasun Atarian, gune bat garatuko da gizarteak parte hartzeko, eta gazteentzako osasunari buruzko webgune bat eginen da.

– Gaixo Eskola - Osasun Eskola garatuko da, gaixo adituen parte-hartze aktiboarekin.

– Erkidegoaren sustapenerako eta parte-hartzerako estrategia garatuko da, bai eta sareko lana ere, toki esparruko udal entitateekin eta entitate sozialekin.

**2. galdera. Nola aplikatuko ditu bere proposamenak?**

– Batzorde tekniko laguntzakoen eskumenak indartu dira, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren egiturari buruzko dekretuan.

– Legegintzaldiko ekintza plana, zeina berriki aurkeztu baitugu Osasun Batzordean, parte-hartzearen bitartez garatu zen jada.

– Hemendik gutxira, Sendagileen Elkargoarekin hitzarmen bat eginen da, non Departamentuak konpromisoa hartuko baitu kudeaketa klinikoa bultzatzeko, profesionalen parte-hartzerako eta inplikaziorako tresna nagusi gisa, eta berariaz konpromisoa hartzen dugu aurreko galderaren erantzunean aipatu ditugun parte-hartzearen bidezko eztabaida-prozesuak sustatzeko. Joan den urtean jada antzeko bat sinatu zen Erizainen Elkargoarekin.

– Zehazki, jada hasita dago Auto-kudeaketarako eta Ebaluazio Klinikorako Eredua diseinatzeko parte- hartze bidezko prozesua. Kudeaketa Klinikorako Komite Zentrala egituratu da, bai eta aldi berean, laguntza-gerentzietako bakoitzaren eztabaida komiteak (Nafarroako Ospitalegunea, oinarrizko osasun laguntza, osasun mentala, eta Lizarrako eta Tuterako barrutiak).

Honako hau izanen da Kudeaketa Klinikorako Komite Zentralaren osaera:

– Oinarrizko osasun laguntzako, osasun mentaleko, Nafarroako Ospitaleguneko, Lizarrako Osasun Barrutiko eta Tuterako Osasun Barrutiko batzorde tekniko laguntzako bakoitza ordezkatzeko sendagile bat, aipatutako batzordeetako kide diren eta zuzeneko laguntza-lanean diharduten sendagileek beraien artean hautatua.

– Oinarrizko osasun laguntzako eta Nafarroako Ospitaleguneko batzorde tekniko laguntzako bakoitza ordezkatzeko erizain bat, aipatutako batzordeetako kide diren eta zuzeneko laguntza-lanean diharduten erizainek beraien artean hautatua.

– Gizarte langile bat, oinarrizko osasun laguntzako batzorde tekniko laguntzakoaren kidea izan eta zuzeneko laguntza-lanean diharduena.

– Sendagileen Elkargo Ofizialak izendatutako ordezkari bat.

– Erizainen Elkargo Ofizialak izendatutako ordezkari bat.

– Nafarroan ordezkaritza zabalena duten gaixoen elkarteen bi ordezkari.

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko 6 ordezkari.

– Osasun Departamentuaren bi ordezkari.

– Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak plan estrategiko bat egiteko partaidetza-prozesu bat jarri du abian.

– Batzorde tekniko laguntzakoen funtzionamendurako helburuak eta adierazleak ezarriko dira, proposatutako, adostutako eta ezarritako ekimen eta berrikuntza mota desberdinei buruzkoak, eta konpromisoa hartu dugu hartutako akordio edo erabakiak, batzorde tekniko laguntzakoek emandako irizpenetatik aldentzen direnak, formalki haiei jakinarazteko.

– Osasunaren arloko herritartasunari buruzko kapitulu berariazko bat garatu nahi dugu legegintzaldi honetan bultzatzeko konpromisoa hartu dugun osasunari buruzko foru lege berrian.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko apirilaren 8an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

## Galdera, itxarote-zerrendak murrizteko xedez mediku espezialistak kontratatzeari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Begoña Ganuza Bernaola andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, itxarote-zerrendak murrizteko xedez mediku espezialistak kontratatzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 18ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Begoña Ganuza Bernaola andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-15/PES-00105), jakin nahi baitu “Osasun Departamentuak mediku espezialistarako zer kontratu egiteko asmoa duen, itxarote-zerrenden arazoa konpontzeko”. Hauxe da Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

Itxarote-zerrenden egoeraren bilakaerak determinatuko du zein espezialitate medikotan kontratatu beharko diren sendagileak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko apirilaren 5ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

## Galdera, itxarote-zerrendak murrizteko aurreikusitako egutegiari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Begoña Ganuza Bernaola andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, itxarote-zerrendak murrizteko aurreikusitako egutegiari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 18ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Begoña Ganuza Bernaola andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16/PES-00106), informazioa nahi baitu "itxarote-zerrendak murrizteko aurreikusitako egutegiari buruz". Hauxe da Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

Itxarote-zerrendak murriztea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren helburu iraunkor eta etengabekoa da.

2016ko abenduaren 31rako helburua da 40.000ra jaistea lehen kontsultarako itxarote-zerrendan dauden gaixoen kopurua, eta 9.000ra, berriz, ebakuntza kirurgikoaren zain dauden gaixoen kopurua.

Behin helburu hori lortuta, hurrengo urtean anbizio handiagoko helmugak jarriko dira, gaixoen beharrizanak hobeki aseko dituztenak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko apirilaren 7an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

---

## Galdera, Buztintxuriko Osasun Etxearen ordutegia luzatzeari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Begoña Ganuza Bernaola andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Buztintxuriko Osasun Etxearen ordutegia luzatzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 18ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Begoña Ganuza Bernaola andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00107). Honako hau da galdera hori: Osasun Departamentuak ba al du Buztintxuriko Osasun Etxearen ordutegia luzatzeko asmorik, erabiltzaileen eta profesionalen eskariari erantzuteko? Hona Osasuneko kontseilariak igortzeko duen informazioa:

Buztintxuriko Osasun Etxean aurreikusita dago laguntza pediatrikorako ordutegia arratsaldez ere ematea, 19:00ak arte, pediatriako kupo erdi berri bat sortuz. Horretarako pediatra bat eta pediatriako erizain bat kontratatuko dira, biak ere lanaldi erdian. Apirilaren 25etik aurrera izanen du eragina neurri horrek. Horrekin kalkulatzen da Buztintxuriko Oinarrizko Osasun Laguntzako Lantaldeko pediatrek, batez beste, 1010 banakako osasun txartel izanen dituztela beren ardura pean, haietako bakoitzari egokitzapena egin ondoren.

Gainera, administrari bat ere kontratatuko da, lanaldi ertainean, arratsaldeko ordutegiarekin, pediatriako kontsultan, eta beste bat, berriz, lanaldi erdiarekin hori ere, goizeko ordutegian, arretako

lehenengo orduetan gertatzen den eskari-gailurrean laguntza emateko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

---

## Galdera, jakitekoa ea Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin zer zuzemen egin duen Haur eta Lehen Hezkuntzako maisu-maistren graduetako ikasleek ingeleseko B2 edo/eta C1 maila kreditatzen duen titulua lor dezaten.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa ea Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin zer zuzemen egin duen Haur eta Lehen Hezkuntzako maisu-maistren graduetako ikasleek ingeleseko B2 edo/eta C1 maila kreditatzen duen titulua lor dezaten. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 18ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 13n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak 9-16/PES-00108 informazio-eskaria aurkeztu du. Hona hemen Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Hezkuntzako kontseilariak Unión del Pueblo Navarro gai honi berari buruz egindako aurreko informazio-eskariari (9-16/PES-00017) emandako erantzunetik ondoriozta daitekeen bezala, zuzeneko eta etengabeko komunikazioa dago Hezkuntza Departamentuaren eta NUPeko Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatearen artean. Zentro horretan irakasten dira haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako maisu-maistren graduak. Izan ere, une honetara arte, bost bilera izan ditugu Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateko zuzendaritzarekin. Dekano berria hautatu ondoren, lankidetza horrekin jarraituko da.

Aipatutako erantzunean kontsulta daiteke Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B1 maila finkatzen duen Estatuko araudia (abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Agindua eta abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Agindua). Gainera, araudi horrek goitik behera zehazten ditu ingelesezko irakasgaietan eskuratu beharreko hizkuntza-gaitasunak, nahitaez betetzekoak direnak Nafarroako Unibertsitate Publikoko maisu-maistren bi graduetan.

Halaber, erantzun horretan azaldu zen bezala, Nafarroako Unibertsitate Publikoak ahalegin handia egin du ingelesaren irakaskuntza hobetzeko gradu horietan; hori dela eta, gaur egun Errioxako Unibertsitatearekin batera, Estatuan atzerriko hizkuntzako nahitaezko kreditu gehien dituen unibertsitatea da: 18 ECTS, bai haur hezkuntzako maisu-maistra gradurako, bai lehen hezkuntzakorako.

Halaber, jada azaldu zen "NUPeko gradu horietako ikasleen kopuru handi batek Hizkuntzen Europako Esparru Bateratuko C1 maila kreditatzen duela"; ikasle horien artean daude ingelesaren aipameneko kredituak gainditzen dituzten ikasle guztiak, bai eta, hizkuntza-kreditatzerako beste bide batzuetatik C1 mailara iritsi ondoren, espezializaziorako beste ibilbide bat aukeratu dutenak ere.

Halaber, Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateko zuzendaritzak emandako informazioarekin,

Departamentuak ederki daki “gaur egun gauzatzen ezinezkoa dela titulua lortzen duten guztiek gutxienez ere Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B2 maila kreditatzea, behinik behin unibertsitateko ikasleek gaur egun duten ingelesezko gaitasunetik abiatuta”. Gainera bokazio handia eta espediente onak dituzten ikasle hauei ezin zaizkie exijitu lortzen ezinezkoak diren mailak, eta unibertsitateak, bestela ere, ezin ditu egiaztatu lortu ez diren hizkuntzaren gaineko jakintza eta gaitasun batzuk.

Hezkuntza Departamentuak lan egin du eta lan egiten jarraituko du Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateko lantaldearekin, ikasleek ingelesez daukaten hizkuntza-gaitasunaren mailak, bai eta maisu-maistren graduetan exijitzen diren gainerako gaitasunetako mailak ere, egiazki erantzun diezaieten Nafarroako hezkuntza sistemaren beharrei, sistema horretako irakaskuntza-kualifikazioa doitzen saiatuz, baina betiere diagnostiko eta helburu errealista eta zorrotzetatik abiatuta.

Iruñean, 2016ko apirilaren 12an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## Galdera, frantseseko ikasleentzako truke-programari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, frantseseko ikasleentzako truke-programari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 18ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeak 9-16/PES-00109 galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Planteatuta gaiari dagokionez –Hezkuntza Departamentuaren deialdia, frantsesezko ikasleentzako truke-programa–, honakoa esan daiteke:

Hezkuntzako zuzendari nagusiaren martxoaren 10eko 68/2016 Ebazpenaren bitartez, Frantziarekiko truke-programarako deialdia onetsi zen. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren menpeko A, G, A/G, A/D eta A/G/D ereduetako ikastetxeetako DBHko 3. mailako ikasleei zuzenduta dago, 2016-2017 ikasturteari begira.

Iruñean, 2016ko apirilaren 12an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Lege Gordailua: NA – 363-1995 ISSN: 2254–1950